



# Eibarko kirolean emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa eta ekintza-lerroak

2016ko martxoa



E [info@aventoconsultoria.com](mailto:info@aventoconsultoria.com)  
[www.aventoconsultoria.com](http://www.aventoconsultoria.com)





## AURKIBIDEA

---

### I. ATALA: DIAGNOSIA

1. Sarrera .....	8
2. Helburua eta metodologia .....	10
3. Eibarko kirol arloaren azterketa .....	13
3.1. Eibarko Udalaren Kirol Saila eta Udal Kirol Patronatua (UKP) .....	15
3.1.1. Egitura .....	15
3.1.2. Kirolerako azpiegiturak .....	16
3.1.3. Diru-laguntza bidezko kirol-politika .....	21
3.1.4. Hizkera eta irudiak Kirol Sailean eta UKPn .....	29
3.2. Parte hartzeko kirola .....	34
3.2.1. Abonamenduak .....	34
3.2.2. UKPk eskainitako jarduerak .....	39
3.2.3. Beste zenbait parte hartzeko jarduera .....	46
3.3. Eskola-kirola .....	51
3.4. Errendimenduko kirola .....	57
4. Bibliografia .....	66





## II. ATALA: EKINTZA-LERROAK

1. Kirol Saila eta Udal Kirol Patronatua .....	68
2. Parte hartzeko kirola .....	69
3. Eskola-kirola .....	70
4. Errendimendu kirola .....	71





## TAULEN, GRAFIKOEN ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

---

### TAULAK:

1. Informazioa jasotzeko prozesuaren deskribapena .....	12
2. Eibarko biztanleak 2014an, adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta .....	13
3. Eibarko UKPk kudeatutako kirol- ekipamenduak .....	16
4. 2015ean ohiko jarduerengatik klubei emandako diru-laguntzak .....	21
5. Ohiko jarduerak diruz laguntzeko oinarrietan txertatuta dauden ekintza positiboak .....	23
6. Aparteko jarduerentzat 2015eko diru-laguntza nominalak .....	24
7. Azken hiru urteetan kirolari emandako sariak, sexuaren arabera .....	25
8. Kirol Sailak eta UKPk dokumentazioetan erabilitako hizkera . .....	32
9. Eibarko UKPko abonatuak ehunekotan, biztanleak adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta .....	34
10. Eibarko UKPko abonatuak, adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta .....	35
11. 2015/2016 ekitaldian Eibarko UKPk eskainitako jarduerak .....	39
12. UKPko jardueretan parte-hartze maila, adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta.....	40
13. UKPk eskainitako jardueretan parte hartzen duten abonamendudun emakume eta gizonen kopurua, ehunekotan . .....	41





14. Parte-hartzea jardueraren eta sexuaren arabera sailkatuta (2015/09/15) .....	44
15. Eskola-kirolean parte-hartzea, sexuaren eta kategoriaren arabera sailkatuta (2014/2015)..	52
16. Federatu lizentziak Eibarren.....	58

## GRAFIKOAK:

1. Eibarko biztanleria, sexuaren arabera sailkatuta (2014).....	13
2. Eibarko biztanleria, adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta (2014).....	14
3. 2015ean ohiko jarduerengatik klubei emandako diru-laguntzen banaketa .....	22
4. Kirol arloan 2015eko diru-laguntza nominalen banaketa .....	24
5. Azken hiru urteetan kirolari emandako sariak, sexuaren arabera sailkatuta .....	26
6. Eibarko UKPko abonatuak 2015ean, adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta .....	35
7. 2015eko irailaren 15eko sarrera-erregistroetan emakume eta gizonen proportzioa.....	36
8. Ipuruako kiroldegira egin diren sarraldiak (2015/09/15).....	36
9. Ipuruako kiroldegira egin diren sarraldiak, ordutegiaren, sexuaren eta adin-taldearen arabera sailkatuta .....	37
10. UKPren jardueretan parte hartzen duten emakume eta gizonak, ehunekotan .....	40
11. UKPren jardueretan parte-hartzea, sexuaren arabera sailkatuta.....	45
12. Eskola-kirolaren programan parte-hartzea, ehunekotan, eta sexuaren arabera sailkatuta ..	52





13. Eskola-kirolean parte-hartzea, sexuaren eta kategoriaren arabera sailkatuta .....	53
14. Eskola-kiroleko parte-hartzearen eboluzioa, sexuaren arabera sailkatuta .....	54
15. Federazio-lizentziak Eibarren, ehunekotan, eta sexuaren arabera sailkatuta .....	57
16. Federazio-lizentzien banaketa Eibarren, kirol-modalitatearen arabera sailkatuta.....	59
17. Federazio-lizentzien banaketa Eibarren, kirol-modalitatearen arabera sailkatuta (mendia, bola-jokoa eta tiroa kanpo utzita) .....	60
18. Eibarko futboleko emakumeen parte-hartzea.....	61

## IRUDIAK:

1. 2010 Hiri-antolamendua eta Generoa txostena: kirol-ekipamenduen arazoa .....	18
2. Eibar Kirol Elkarteko emakumezkoen taldeari omenaldia .....	27
3. UDA igeriketa kanpaina UKPren web-orrian .....	29
4. Ipurua kiroldegiko kanpoko igerilekuaren barne-araudia .....	29
5. Ipurua kiroldegiko atondoan apaintzen duten horma-irudiak .....	30
6. Ipurua kiroldegiko atondoan apaintzen duten horma-irudiak .....	30
7. Ttatt gimnasioaren jardueren iragarkiak Facebooken .....	31
8. Ttatt gimnasioaren jardueren iragarkiak Facebooken.....	31
9. Eibarko UKPren logotipoa .....	32



## I. ATALA: DIAGNOSIA



## 1. Sarrera

1991. urtean EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko I Plana (EEEEPP) onartu zenetik, EAEn Berdintasun Politika ugari garatu dira. Orduan hasi eta gaur arte, Eusko Legebiltzarrak sei Berdintasun Plan onartu ditu guztira. Kirolean emakumezkoen parte-hartzea errazteko neurriak hartu eta dauden oztopoak kentze aldera, plan hauetan guztietan kirola berariazko esparru edo esku-hartzeko ardatz izan da. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako VI. Planeko berariazko helburu eraginkorren artean dago emakumeen kirol-jarduera sustatzea, emakumeen ahalduntze kolektiboa lortu nahi bada. Jarduera-fisikoa egiteko modua edozein dela ere, eta emakumeen arteko aniztasuna aintzat hartuta, emakumeek ere kirol baliabide guztiak eskura edukitzea bermatu nahi da.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko legediari erreparatuz gero, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legearen 25. artikulua dio administrazio publikoek ezingo dutela diruz lagundu sexuagatik baztertzaila den kirol-jarduerarik; kirol-modalitate guztietan tratu berdintasuna bermatzeko neurriak hartuko direla; eta, bai emakumeek bai gizonek egiten dituzten kirolentzat laguntzak sustatuko direla.

Eibarko berdintasun-politikak kontuan hartzen baditugu, 2011-2014 Eibarko Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako II. Planak kirolean emakumeek parte-hartze handiagoa eduki behar dutela azpimarratzen du, eta Eibarko emakume kirolariak agerira ekarri behar direla ere bai. Hala ere, Eibarko Udalak beharrezkotzat jo du kirol arloan sektoreko diagnostia egitea, Eibarren kirolean emakumeen parte-hartzea zerk zailtzen duen ezagutzeko, eta, aldi berean, aipatu arloan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzera bideratutako neurriak zehazteko.

Tokiko kirol-politikei dagokienez, berriz, Kirolaren Plan Estrategiko bat garatzen ari da une honetan Udala, Eibarko kirol arloko hainbat eragilerekin batera. Plan honek, bai tokiko kirol-eskaintza hobetzeko bai herritar guztiengan kirol-jarduerak sustatzeko garatu beharko lirakeen neurriak zehaztu nahi ditu. Bide horretan, genero ikuspuntutik egindako kirol esparruaren azterketak zenbait gako emango dizkigu, Kirolaren Plan Estrategikoari erantsi ahalko zaizkionak.







Honek, adin desberdinetako emakumeei kirola egiten hastea erraztuko die, eta baita jarraitasuna eman ere.

Hitz batez, Eibarko Udalak herritarren bizimodu osasuntsua sustatuko duen kirol eskaintza eta kudeaketa defendatzen ditu, eta, gizon zein emakume izan, bizitzako garai guztietan kirolaz gozatzeko aukera edukitzea.





## 2. Helburuak eta metodologia

### • Helburua

Proiektu honen helburu nagusia Eibarko herritarrek jarduera-fisikoarekin eta kirolarekin duten erlazioa zein den jakitea da, bizitzako garai desberdinetan eduki ohi diren jarrerak eta portaerak kontuan hartuta. Gaur egun herrian zein kirol-eskaintza dagoen ere jakin nahi da. Bestalde, Udalaren eskaintza eta azpiegiturak herritarren beharrianetara eta gustuetara egokitu asmoz, proposamenak egin nahi dira.

Helburua lortze aldera azterketa bat burutu da, kirol-jarduera motak eta inplikaturako eragileak kontuan hartuta. Horrela bada, Eibarko kirol esparrua lau azpiataletan zatitu da: Udaleko Kirol Saila eta Udal Kirol Patronatua (UKP); parte hartzeko kirola, norbere gozamenerako edo ongizaterako egiten dena; errendimendu kirola, helburua kirol-emaizta jakin bat lortzea izaten da, eta federatuak barne-hartzen ditu; eta, eskola-kirola, bai eskolan eta eskola-adinean bai eskola-orduez kanpo egiten den kirol-jarduera.

Udaleko kirol-esparruaren azterketa gidatzeko zenbait jarraibide erabili dira:

- Herriko kirol-guneei eta kirol-ekipamenduei zein erabilera ematen zaien aztertzea, eta herritarren beharrianetara egokituta dauden antzematea.
- Abonatu kopurua aztertzea, sexuaren arabera sailkatuta, eta erabilerari dagokionez desberdintasunak aztertzea.
- Kiroldegiak eskainitako jardueretan emakumeen eta gizonen parte-hartzearen desberdintasunak aztertzea.
- Kirol-federatuari eta ez federatuari dagokionez, Udalaren joerak deskribatzea.
- Ohiko zein aparteko kirol-jarduerak burutzeko Eibarko Udalak emandako diru-laguntza publikoak aztertzea.
- Udalaren kirol-jardueretan parte hartzeko emakumeek dituzten zailtasunak antzematea.
- Eskola-kirola antolatuta zelan dagoen aztertzea, baita parte-hartzea ere.





## • Metodologia

Proiektua burutzeko metodologia mistoa aplikatu da; datu kuantitatiboak eta kualitatiboak bateratzen dituen metodologia, hain zuzen ere. Tokiko kirol-esparru ugarietako emakumeek eta gizonek parte-hartu duten elkarrizketetan eta saioetan, edo talde dinamiketan jaso dira datu hauek.

Metodologia honi esker, batetik, kirol arloan dagoen partaidetza-maila zenbatekoa den jakin ahal izan da, eta, aldi berean, kirolerako azpiegituren kudeaketa nolakoa den deskribatu da; eta, bestetik, Eibarko kirol esparruari buruzko herritarren iritziak, oharpenak eta ulertzeko moduak ezagutu dira.

Jarraian, informazio jasotzeko erabili den prozesua zein izan den adierazten duen taula ageri da, baita kasu bakoitzean zein metodologia aplikatu den ere.





## 1 taula. Informazioa jasotzeko prozesuaren deskribapena

	TEKNIKA	INFORMAZIO ITURRIA	EDUKIA
DATU Kuantitatiboa K	---	Eibarko Udal Kirol Patronatua (UKP)	UKPren osaketa, abonatu kopurua adin tarte eta sexuaren arabera, eskaini diren jardueretan parte-hartzea sexuaren arabera, Ipuru kiroldegiko sarrera-erregistroa, herriko kirol klubei buruzko informazioa, etab.
		Udaleko kirol saila	Sailaren aurrekontua, diru-laguntzen oinarriak, emandako diru-laguntzak, kirol taldeekin izenpetutako hitzarmenak.
		www.eibarkirola.com	Eibarko kirol-instalazioak, eskaini diren kirol-jardueren buruzko informazioa.
		www.gipuzkoa.net	Eibarko biztanleen datuak.
		... eta kitto! Euskara Elkartea	Kirolari emandako sarietako buruzko informazioa.
		http://info.kirolbegi.net	Eibarko kirol klubak; federatu lizentziak.
		Eibar Kirol Elkartea	Emakumeen lizentziak, kategoriako.
DATU KUALITATIBOAK	Elkarrizketa erdi-egituratuak	Kirol arloko zinegotzia <sup>1</sup>	Kirol sailaren egituraketa, kirol arloko hitzarmenak, sailaren aurrekontua, diru-laguntzen banaketa, etab.
		Andretxeako koordinatzailea	Eibarren kirol arloko beharrezkoak genero ikuspuntutik, emakumeen Mahaiak egindako ekarpenak, aukerak eta erronkak.
		Gazteria saileko teknikaria	Eibarko neskato-mutikoen kirol ohiturak, baita gazteenak ere; estereotipoak, Gazteleku antolatutako jarduerak; Eibarren, familian elkarrekin burutu ahal izateko moduko jarduerak; Udaleko beste sail batzuekin elkarlana.
		Kirol Patronatuko gerentea	Kirol-instalazioen egoera eta balorazioa, arazoak eta aukerak; pistak eta zelaia banatzeko irizpideak, eskaintako jardueretan parte-hartzeari buruzko iritzia, kirol federatuen parte-hartzeari buruzko informazioa, etab.
		Eskola-kirolaren koordinatzailea	Helburuak: gaur eguneko eskaintza, plangintza, antolakuntza eta koordinazioa, parte-hartzea; monitoreen profesionaltasun maila; Udaltzainguko inplikazioa, klubena, gurasoena; baterako hezkuntza; ereduak.
		Eibar Kirol Elkarteko emakumezkoen taldeko koordinatzailea eta jokalariek	Eibarko kirol federatuen emakumeen parte-hartzeari buruzko informazioa; kirol ibilbidea; esperientzia Eibar taldean; zailtasunak eta erraztasunak; kirola uzteak eta aukerak.
		Eibar RTko emakumezkoen taldeko jokalariek	Eibarko kirol federatuen emakumeen parte-hartzeari buruzko iritzia; kirol ibilbidea; esperientzia Eibar RTn; zailtasunak eta erraztasunak; kirola uzteak eta aukerak.
		IKASTENeko kideak	Jarduera-fisiko egiteko eskaintza, sexuaren arabeko parte-hartzea, balorazioa.
		Ibilbide osasuntsuen sarea (Projekta) proiektuaren arkitektoa	Ibilbide osasuntsuen sarea garatzeko bidean, antzemandako beharrezko buruzko informazio trukeak (seinaleztatzen, argiteria, guneak egokitzea, etab.).
	Taldea dinamikak	Parte hartzeko kirola (emakumeak)	Adina, egiten duten jarduera-fisiko, eskarmentua kirolean, kirola egiteko moduei dagokienez, emakumeen eta gizonen artean antzemandako desberintasunak; estereotipoak eta erresistentziak, instalazioen buruzko iritzia; UKPk eskaintako jardueren buruzko iritzia, aire zabaleko kirol-eremuak eta herritarren kirol-ohiturak, etab.
		Eskola-kiroleko monitoreak	Programa garatzea, antolakuntza eta koordinazioa; parte-hartzea; estereotipoak; gurasoen jarrera; baterako hezkuntza, ereduak.
		Kirol klubetako zuzendaritza-batzordeak	Kirol federatuen parte-hartzearen deskripzioa, baliabideen banaketari dagokienez eskarmentua klubetan, parte-hartzea sustatzeko moduak, Eibarko gazteriari zuzendutako kirol-eskaintza, kirola uztea, kirol-instalazioak, emakumea eta kirola.
		Kirol federatua (emakumeak)	Adina; esperientzia klubetan, zailtasunak edo antzemandako egoera diskriminatzaileak; aukeratzeko berdintasun eza, parte-hartzea eta kirola uztea; gizartearen babesa; ereduak, inguruko babesa; instalazioak.

ITURRIA: norberak egina.

<sup>1</sup> Diagnostikari ekin zitzaionean 2011-2015 legealdia amaitzean zegoen, eta orduko kirol arloko zinegotziari egin zitzaion elkarrizketa.



### 3. Eibarko kirol arloko analisia

Eibarrek 27.436 bizilagun ditu guztira, 14.123 emakume eta 13.313 gizon; Biztanleria adin-taldearen arabera:


2 taula. Eibarko biztanleria 2014an, adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta

ADINA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
0-5	663	661	1.324
6-12	870	904	1.774
13-18	622	611	1.233
19-30	1.387	1.408	2.795
31-45	2.785	3.088	5.873
46-65	3.931	3.835	7.766
66-75	1.591	1.415	3.006
75+	2.274	1.391	3.665
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.123</b>	<b>13.313</b>	<b>27.436</b>

ITURRIA: norberak egina, Eibarko biztanleen jaiotze eta sexuari buruzko datuak oinarri hartuta.  
Gipuzkoako Foru Aldundia: [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net)

Biztanleen % 49 emakumeak dira, % 51 gizonak.

1 grafikoa. Eibarko biztanleria, sexuaren arabera sailkatuta (2014)




ITURRIA: norberak egina.





Emakume eta gizon gehien dagoen adin-tartea 46 eta 65 urte artekoa da; hurrengoa, 31 eta 45 urte artekoa.

## 2 grafikoa. Eibarko biztanleria adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta (2014)



ITURRIA: Norberak egina.





### 3.1. Udalaren Kirol Saila eta Udal Kirol Patronatua (UKP)

#### 3.1.1. Egitura

Kirol arloa, udalerrian, bi sailetan banatzen da: batetik, Udalaren Kirol Saila. Bertatik kudeatzen dira kirol erakundeei emandako diru-laguntzak. Eta, bestetik, kirol-instalazio nagusiak eta Udal Kirol Patronatuak (UKP) –Eibarko Udalaren organo autonomoak– eskaintzen eta kudeatzen dituen jarduerak.

UKPren erabakitze-organoan eta langileen artean emakumeak ere badaude. Batetik, UKPk 16 langile ditu, 7 emakume eta 9 gizon. Langile propioez gain, UKPk hainbat zerbitzu azpikontratatu ditu: garbiketa; kirol-jarduerak; sorospena; lorezaintza; eta Udalaren kiroldegietako batean (bi ditu) atezaintza-zerbitzua.

Bestetik, UKPren zuzendaritza-egitura osatzen dute: artezkaritza kontseiluak, Eibarko alkatea da lehendakaria, eta kirol arloko zinegotzia lehendakariordea. Bost batzordekidek (3 emakume eta 2 gizon)<sup>2</sup>, gobernuko eta oposizioko alderdiak, sindikatuak eta kirol klubak ordezkaturik. Beraz, UKPren erabakitze-organoetan emakumeak ere badaude. UKPko zuzendariak ere parte hartzen du kontseilu honetan, hitzarekin baina botorik gabe.

#### Egiturak: beharrianak eta hartu beharreko neurriak laburbilduta

- Eibarko Udalak ezarritako kontratazio-irizpideetan komunikazio ez-sexistari buruzko neurriak baino zehazten ez diren arren, otsailaren 18ko Gizon eta Emakumeen berdintasunerako 4/2005 Legearen 20. artikulua agintzen duenarekin bat etorriz, kontratuei buruzko legeriak hala uzten duenean gizon eta emakumeen berdintasuna bermatzeko klausula bat ezarri beharko litzateke, kirol-instalazioetako jarduerak, garbiketa, mantenu-lanak, etab. kudeatzeko egiten diren lehiaketetan eta Udalak edo UKPk egiten dituen kontratu publikoetan.

<sup>2</sup> Eibarko Udalaren web-orritik hartutako informazioa: [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)





### 3.1.2. Kirol azpiegitura

Eusko Jaurlaritzaren kirol-instalazioen erroldaren<sup>3</sup> arabera, Eibarrek 40 kirol-instalazio ditu guztira, 126 kirol gunerekin eta 137 gune konbentzionalekin. Instalazio hauetako zenbait publikoak dira, eta beste zenbait pribatuak. Instalazio publiko garrantzitsuenen artean daude, besteak beste: Ipurua Udal Kirol Zelaia, hitzarmen bidez Eibar Kirol Elkartek kudeatzen duena; eta, Eibarko UKPk kudeatzen dituen Ipurua eta Orbea kiroldegiak, Unbe gunea, eta Astelehena pilotalekua.

Jarraian, UKPk kudeatutako kirol-instalazioetako kirol gune nagusiak eta osagarriak zehaztu dira:

3 taula. Eibarko UKPk kudeatutako kirol-ekipamenduak

	IPURUA KIROLDEGIA	UNBE	ORBEA KIROLDEGIA	ASTELENA PILOTALEKUA
Gune nagusiak	Igerileku estalia Estali gabeko igerilekua Pilotalekua Squasha Fitness aretoa Spinning aretoa Muskulazio aretoa Gimnasioa Kirol anitzeko pista Rokodromoa Bulder-a Dantza aretoa Kirol medikuntzako zentroa Sauna Estetika gunea Tenis pista Ping ponga	Muskulazio aretoa Futbol 11 zelaia Futbol 7 zelaia Errugbi zelaia Atletismo pista 400m Tenis pista Padel pistak (2) Trostan egiteko gunea	Wellness igerilekua Muskulazio aretoa Kirol anitzeko gelak (2) Wellness gunea	Pilotalekua
Gune osagarriak	Aldagelak Batzar-gelak Kafetegia Administrazio-arloa	Aldagelak Batzar-gelak Kafetegia Administrazio-arloa	Aldagelak	Aldagelak Harmailak Taberna-kafetegia

ITURRIA: [www.eibarkirola.com](http://www.eibarkirola.com) eta <http://instalazioak.euskalkirola.com/>

<sup>3</sup> <http://instalazioak.euskalkirola.com/>





Talde dinamiketan eta elkarrizketetan, Ipurua kiroldegia buruz hitz egiterakoan, zaharkituta dagoela nabarmendu da, eta behar-beharrezkoa duela birmoldaketa bat. Batetik, Ipuruako igerilekua txiki geratu dela adierazi dute, eskaerari aurre egin nahi bada. Gainera, UKPk haurtxoei igeriketa ez eskaintzea erabaki zuen, beharrezko baldintzak betetzen ez zirela-eta. Bestetik, Ipuruako gimnasioko instalazioak hobetu beharko lirakeela ere esaten dute, bereziki gune aerobikoa zabaldua.

UKPko gerentearen ustean Eibar aktiboa da kirol arloan, eta zaila da guneak egoki banatzea: klubak, eskola-kirolaren eta doako guneak –kirol anitzeko pista, esaterako– erabili nahi dituzten artean. Eskoletako instalazioak hobetu beharko lirakeela uste du, eta, beraz, Concepcion komentuko erabilera anitzeko pista –Ipurua kiroldegia aurrez aurre dago– estaltzea proposatu du. Honek eskola-kiroleko jarduerak eta klubak entrenamendu-saioak antolatzen laguntzeaz gain, abonatuak doako erabilera-orduak emateko balioko du.

Ipuruako instalazioek birmoldatzea behar dutela uste du UKPko gerenteak ere. Guneak hobeto aprobetxatu behar direla irizten dio, ping ponga dagoen sarrerako atondoan esaterako. Kiroldegia hau 1982an eraiki zen, eta beharrezkoa litzateke arau berriek agindutako edo urteen joan-etorriak eragindako unean-uneko konponketek haratago doan birmoldatze-plan bat.

Adierazitako ekipamenduez gain, Eibarrek beste lau gimnasio ditu, pribatuak (Juanito, Ttatt, Tx4 eta Ugan), baita zenbait padel pista pribatu ere; eta, estalitako edo estali gabeko beste hainbat gune: Sautxiko eta Amaña dorreetako kirol anitzeko pistak, skate park-a, probalekua, bola-lekua, tiro-zelaia, bi tatami, lau pilotaleku, BTTentzako lau ibilbide; eta, herriko ikastetxeetako ohiko erabilerarako hainbat eta hainbat kirol gune.

Eibarko kirol-ekipamenduei buruzko azterketa honen harira eibartarrek emandako iritziak 2010ean Hiria Kolektiboak<sup>4</sup> genero ikuspuntutik egindako hirigintza-diagnosiaren emaitzak berresten ditu: Ipurua kaletik Ipurua kiroldegirako sarrerak ez du segurtasunik ematen, batez ere Unbeko instalazioetarako ibilbideak. Txostenak aipatzen du argiteria ez dela nahikoa, ez eta garraio publikoaren ordutegia ere, erabiltzaile kopurua aintzat hartuz gero.

---

<sup>4</sup> HiriaKolektiboa (2010). *Ciudad y género, diagnóstico urbano con perspectiva de género*. Eibar Hiri Debekatuko Mapa ikastaroetako txostena. Eibarko Udalarentzat egindako lana.



## 1 irudia. 2010 Hiri-antolamendua eta Generoa txostena: kirol-ekipamenduen arazoa

el estado de degradación de este acceso sea un problema urgente a resolver. Una solución propuesta y aparentemente sencilla, sería la habilitación como ascensor público del montacargas que existe dentro del edificio.



- Se asume la ubicación periférica del complejo de Unbe dentro de la difícil orografía del municipio. La mayoría de la ciudadanía accede en vehículo privado. Hay un autobús pero su escasa frecuencia no garantiza el acceso en este medio de transporte cualquier día a de la semana y a cualquier hora. Si el servicio resulta insuficiente y no responde a las necesidades horarias de todas y todos será poco usado y la ciudadanía seguirá eligiendo el vehículo privado por comodidad, seguridad y ahorro de tiempo. Cuando se ubica un equipamiento colectivo tan a desmano como esta ciudad deportiva, debería ser prioritario



### ITURRIA: Eibarko Udala (Egilea: *Hiria Kolektiboa*)

Emakumezkoen errugbi taldeko jokalariek adierazi dute beharizan horri aurre egiteko entrenamenduen ondoren gizonzkoen taldeko jokalariekin autoa partekatzen dutela. Hala ere, neskato gazteenak herrira bakarrik jaitsi ez daitezten, etxera entrenamendua bukatu aurretik joateko aukera ematen diete.

- ✓ *“Unbera igotzeko...azkeneko autobusa 19:30ean da, eta laurden gutxiagotan jaisten da. Neskato gazteak koadrilakoekin batera igotzen dira, edo autoan gurasoekin. Ordea, entrenamendua eta gero jaisteko ez dago batere ondo... ilun dago... Gaztetxoek entrenamendua bukatu aurretik bidaltzen ditugu etxera, eta nagusienak autoan jaisten dira. Azken finean, emakume eta gizonen artean moldatzen gara, baina gaztetxoentzat ez da samurra neguan oinez joatea... ez dago ondo, ez”.*



Unbeko instalazioak, berriz, egoera oso onean daudela argitu dute.

Diagnosi honetan parte hartu duten guztiak datoz bat adierazterakoan, Eibar, orografia dela-eta, ez dela aire zabalean korrika egiteko lekurik aproposena. Halaber, bidegorri baten edo ibilbide osasuntsu baten (korrika egiteko edo patinetan ibiltzeko) beharra nabarmendu dute behin eta berriz. Haien esanetan, Urkon edo Aixolan korrika egin nahi dutenean, hara joateko autoa erabiltzen dute sarri; korrika egiteko ohiko beste lekuetako bat Kalamua da, baita Mallabirako, Ermurako eta urtegirako bideak ere. Eibarren korrika egin ohi duten emakumeek diote urtegian eta saihesbidean (harrobirako tunela igarotzeko lekuan) argiteria gutxi dagonez, segurtasun eza eragiten dutela.

Beste zenbait kirol-eremu ere aipatu dira, Amañako pasealekua eta Sautsiko estali gabeko gimnasioa, esaterako. Gune hau kirol erabilerarako egokitzea proposatu dute, inguruko bideak korrika egiteko erabili ahal izateko. Azkenik, Unbetik mendira arteko bidexkak seinaleztatzea beharreko jotzen dute, bidea ondo ezagutu ezik bertan galtzea erraza delako.

Eibarko Udala, Tokiko Agenda 21 proiektuaren barruan, “Eibarko Ibilbide Osasuntsuen Sarea diseinatzeko, seinaleztatzeko eta dinamizatzeko” proiektua garatzen dabil. Helburua da *“herritar guztien ongizate fisikoa eta psikosoziala hobetzea, ibilbide jakin batzuk erabilita hiri-xendazaletasuna segurtasunez eta kalitatez egin ahal izateko”*<sup>5</sup>. Beraz, diagnostiko honetan egindako proposamenak proiektuari erantsi eta bertan aztertuko dira.

---

<sup>5</sup> Proiekta Contract SCPk emandako informazioa. Enpresa honek Eibarko Ibilbide Osasuntsuak proiektua garatzeko ardura du, eta hari helarazi zaizkio Eibarko kirolari buruzko diagnosiaren harira garatutako dinamiketan identifikatu diren beharrianak. Gainera, nabarmentzekoa da Eibarko Ibilbide Osasuntsuen proiektuak genero ikuspuntua hartzen duela kontuan, ezinbestekoa herritar guztien jarduera fisikoa sustatu nahi bada.





## Kirol-azpiegiturak: beharrianak eta hartu beharreko neurriak laburbilduta

- Ipuruako instalazioak zaharkituta daude eta birmoldatze bat behar dute, guneak hobeto aprobetxatzeko eta eskaintzaren kalitatea hobeto bermatzeko. Adibide batzuk:
  - Ipurua kiroldegiko gimnasioan ekipamendua hobetzea, gune aerobikoa zabalduz.
  - Ipurua kiroldegiko sarrerako atondoa hobeto aprobetxatzea.
  - Concepcion komentuko pista estaltzea.
- Hainbat segurtasun-gabeko gune identifikatu dira, argiztapen eta irisgarritasun eza dela-eta:
  - Ipurua kaletik Ipurua kiroldegirako sarrera
  - Unbera igotzeko bidea
  - Korrika egiteko erabiltzen diren bideak
- Eibarko berezko bide eta bidexkak seinaleztatzea





### 3.1.3. Diru-laguntza bidezko kirol-politika

2015 urtean Eibarko Udalaren Kirol Sailaren aurrekontua 1.096.690 €koa izan da, haietako 211.450 € 4. kapitulukoak (transferentzia arruntak). Kirol Sailak aurrekontuaren % 19,28 erabili du kirol entitateei transferentziak egiteko: klubetako ohiko jarduerak burutzeko, aparteko kirol ekitaldiak antolatzea bideratutako diru-laguntza nominalak, txapelketetan parte hartzeko laguntzak (joan-etorriak); babeslearen publizitatea; eta, beste zenbait hornigai.

Gaur egun, bi bide daude diru-laguntzak jasotzeko, beren-beregi egindako oinarriekin araututa bai bata bai bestea: batetik, klubetako ohiko jardueretarako laguntzak; bestetik, txapelketetan parte hartzeko laguntzak

2015 urtean Udalak 6.500 € banatu ditu Eibarko kirol klubetako artean, txapelketetan parte-hartzea laguntzeko, eta beste 64.712,32 € ohiko jarduerak burutzeko.

#### 4 taula. 2015ean ohiko jarduerengatik klubetako emandako diru-laguntzak

Cluba	Zenbatekoa
Axola Berri Bola-joko Elkartea	140,00 €
Eibar Rugby Taldea	8.500,00 €
Urki Kirol Elkartea	4.750,00 €
Eibartarrak futbol taldea	2.990,00 €
KA 1173 Saskibaloia Kirol Elkartea	819,08 €
Kalamua Judo Kluba	4.000,00 €
Ipurua Gimnastika Erritmiko Elkartea	5.553,91 €
Eibar Kirol Elkartea	14.285,62 €
Eibarko Urbat igeriketa	6.881,05 €
Urko Arkularien Kluba	382,50 €
Debabarrena Kirol Elkartea	1.800,00 €
Eskubaloia Taldea	13.922,44 €
Urkomendi	687,72 €
<b>Guztira</b>	<b>64.712,32 €</b>


ITURRIA: Eibarko Udaleko Kirol Saila





Klubei ohiko jardueretarako emandako diru-laguntzen % 43 Eibar Kirol Elkartearentzat eta Eibar Eskubaloi Taldearentzat izan dira: % 22 eta % 23 jaso dituzte, hurrenez hurren. Hirugarren eta laugarren lekuan daude Eibar Rugby Taldea (% 13) eta Urvat igeriketa (% 11).

### 3 grafikoa. 2015ean ohiko jarduerengatik klubei emandako diru-laguntzen banaketa



ITURRIA: norberak egina.

Nabarmendu behar da Eibarko Udalak, klubuen ohiko jardueretara bideratutako diru-laguntzen bidez, ekintza positiboko politikak aplikatzen dituela. Balorazio irizpideei kasu eginez, emakumeen lizentziei –kirolariak eta entrenatzaileak– puntuazio handiagoa ematen die, baita emakumeen taldeei eta kirol-hastapeneko jardueretan parte hartzen duten emakumezko ikasleei ere. Jarraian daude zehaztuta aurrez aipatutako oinarrietan aurreikusitako ekintza positiboak:





## 5 taula. Ohiko jarduerak diruz laguntzeko oinarrietan txertatuta dauden ekintza positiboak

Irizpidea	Ekintza positiboa
A. Kategoriaren arabera	Emakumeen taldeei koefiziente positiboa aplikatuko zaie, puntuak 1,25ez biderkatuz.
B. Federazioaren lizentziak	Emakumeen lizentziek puntuak 1,25ez biderkatuko dituzte
C. Entrenatzaileen kirol-titulazioak <sup>6</sup>	Emakumeen lizentziek puntuak 1,25ez biderkatuko dituzte
D. Kirol-hastapenak	Taldean sartzen den emakume ikasleko 2,5 puntu.

### ITURRIA: Eibarko Udaleko Kirol Saila.

Garrantzitsua da Eibarko Udalak ekintza positibo hauek diru-laguntzak emateko oinarrietan sartu izana –kirolari izatetik haratago, beste estamentu batzuetan emakumeen presentzia ere baloratuta–. Izan ere, kirol federatuan emakumeek hasiera-hasieratik duten desabantaila egoera bat onartzeaz eta zuzentzen ahalegintzeaz gain, emakumeen lizentziak edukitzeak duen garrantziaz klubak sensibilizatzeko modu bat ere bada. Halaber, gomendagarria da ekintza positibo hauek egiturak aldatzera bideratutako beste neurri batzuekin batera aplikatzea. Honek, Administrazioari herriko klubak jarduerak jarraitzen lagunduko lioke, tokiko kirol federatuan emakumeak sartu eta mantentzeko. Bide horretan, egoki litzateke, batetik, kirol eskaintzan “kate-faktorea” baloratzea; hau da, klubei puntuazio handiagoa ematea kadete, gazte eta senior kategorietan jarduerak ziurtatzen badituzte, etorkizunean ere kirol-jarduerari ekiteko aukera bermatuz. Bestetik, genero ikuspuntutik diru-laguntzen eragina zein den jakin beharko litzateke, baliabideak kirolarien artean (emakumeak eta gizonak) egoki banatzeko. Eta, azkenik, Eibarko Kirol federatuan emakumeen parte-hartzea sustatzeko eta ikusarazteko klubek egiten dituzten jarduerari, puntuazio handiagoa eman ahalko lieke Udalak.

Ohiko jarduerak eta txapelketetarako joan-etorriak diruz laguntzeaz gain, Eibarko Udalak diru-laguntza nominalak ere ematen dizkie hainbat erakunderi, urtero, aparteko kirol-jarduerak antolatzeagatik. 2015ean 16.850 € banatu dira, aparteko 10 ekitaldi antolatzeke.

<sup>6</sup> Gaztelaniazko jatorrizkoa maskulino generikoan dago, emakumeen lizentziak barne hartu arren; puntu gehiago ematen duelako, hain zuzen ere. Hala, 3.1.4. puntuan proposatzen den moduan, “entrenadores/as” beharko luke, gaizki ulerturik egon ez dadin.






#### 6 taula. Aparteko jarduerentzat 2015eko diru-laguntza nominalak

Kluba	Ekitaldia	Zenbatekoa
Txirrindulari Elkartea	Valenciaga Memoriala	8.100,00 €
Eibarko Triathloi Taldea	Eibarko Duatloia	1.100,00 €
Eibarko futbol elkarteak	Afizionatu mailako futbol txapelketa	1.600,00 €
Kalamua Kluba	Eibar Hiria Txapelketa	600,00 €
Klub Deportiboa	Gabon zaharretako crossa	600,00 €
Eibarko Klub Deportiboa	Herriarteko txapelketa	550,00 €
Gimnastika Erritmikoko Kluba	Estola-txapelketen probak	800,00 €
Gimnastika Erritmikoko Kluba	San Andres txapelketa	1.800,00 €
Kalamua Kluba	Emakumeen txapelketa	600,00 €
Eibarko Klub Deportiboa	Asier Cuevas Herri Lasterketa	1.100,00 €
<b>Guztira</b>		<b>16.850,00 €</b>

ITURRIA: Eibarko Udaleko Kirol Saila.

Erakundeen artean banatutakoaren % 48 txirrindularitzako aparteko jardueretara bideratu da; %15 gimnastika erritmikora; eta, % 10 atletismora eta futbolera.

#### 4 grafikoa. Kirol arloan 2015eko diru-laguntza nominalen banaketa



ITURRIA: norberak egina.





Kirol arloko gainerako elkarteei Udalak emandako diru-laguntzak honela banatu dira: 48.400 € Euskadi Txirrindulari Antolakuntzak elkarteari, Euskal Herriko Itzuliko etapa baterako; 58.500 € Eibar Kirol Elkarteari, “Eibar innovación-berrikuntza” marka sustatzeko hainbat urterako babesletzagatik. Hau, 2013-2015 urteetan hitzarmen bidez araututa egon da; eta, 6.200 € garaikurretan.

Bestalde, 2015ean UKPren aurrekontua 2.480.690 €koa izan da. Ikastetxeek 34.000 € jaso dituzte, eskola-kirola garatzeko programa barruan UKPren aurrekontuko 4. kapitulutik ordainduta. Diru-partida horretatik 17.000 € Gizpuzkoako Foru Aldundiak eman ditu, Eibarko eskola-kirola laguntzeko.

Azkenik, Eibarko Udalak “...eta kitto!” Euskara Elkarteak kirolari urtero ematen dizkion sariak ere diruz laguntzen dituela esan behar da. Ekitaldi horretan saritzen dira, besteak beste: modalitate bakoitzeko kirolariak (antolatzaileei, klubek beraiek adierazten diote aukeratutako kirolariak zeintzuk diren; euskara erabiltzea kirolean; mezenasgoa; eta, sari berezi bat, kirol-ibilbidea saritzeko. Sari hau 21tan eman da, eta bi emakumek besterik ez dute jaso: Miriam Merinok eta Inma Urkiolak<sup>7</sup>.

Kirolariei emandako sariei dagokienez, azken hiru urteotan aitortza hau jaso duten emakumeak argiro dira gizonezkoak baino gutxiago: haien laurden bat, hain zuzen ere.

#### 7 taula. Azken hru urteetan kirolari emandako sariak, sexuaren arabera

	2012	2013	2014	Guztira
Emakumeak	4	3	6	13
Gizonak	20	25	28	73
Guztira <sup>8</sup>	24	28	34	86

ITURRIA: norberak egina, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta [www.diariovasco.com](http://www.diariovasco.com)-ek emandako datuak oinarri hartuta

<sup>7</sup> ... eta kitto! Euskara Elkarteak emandako informazioa.


<sup>8</sup> 2012ko zenbaketan ez da gimnastika erritmikoko taldea sartu (4 emakume), ezta bola-jokoko selekzioa ere (emakume bat eta lau gizon); 2013koan gimnastika erritmikoko taldea ez da kontuan hartu; 2014koan ez dira sartu haurren taldea eta waterpoloko Urvat-Urkotronik.





Eibarko kirolean emakumeek aitortza handiagoa edukitzea zaindu beharko luke Udalak, kirolarien izenak ematen direnean klubei gogorazita emakumeak ere agerian jarri behar direla, beharrezko balitz, sexu bien parte-hartzea bermatuta dagoen kirolean txandakatze-sistema bat jarrita.

### 5 grafikoa. Azken hiru urteetan kirolari emandako sariak, sexuaren arabera sailkatuta



ITURRIA: norberak egina, ...*eta kitto!* Euskara Elkarteak eta [www.diariovasco.com](http://www.diariovasco.com)-ek emandako datuak oinarri hartuta



Halaber, nabarmendu behar da Udalak Eibarko kirolariak aitortu dituela, puntualki, lorpen garrantzitsuak eskuratu dituztenean. Bide horretan, azpimarratzekoa da Eibar Kirol Elkarteko emakume taldeari 2014/2015 denboraldian Espainiako futbol txapelketako bigarren mailara igotzeagatik egindako omenaldia

## 2 irudia. Eibar Kirol Elkarteko emakumezkoen taldeari omenaldia

### Merecido reconocimiento por el ascenso

Las entrenadas por Félix Recio, que suben a Segunda Nacional, fueron homenajeadas por el Ayuntamiento, el Eibar, y las federaciones vasca y guipuzcoana

**DV EIBAR** Me gusta 114  
2 mayo 2015 00:30

Pleno de victorias de los equipos femeninos del Eibar que celebran el ascenso a Segunda Nacional de su primera plantilla con diversos festejos tanto en Unbe como en la recepción del Ayuntamiento. El acto fue presidido por el



Las jugadoras de fútbol del Eibar posaban el jueves en el Ayuntamiento, tras haber logrado el ascenso a la Segunda Nacional. / MORQUECHO

PUBLICIDAD

ITURRIA: Diario Vasco, 2015eko maiatzaren 2a.

[www.diariovasco.com](http://www.diariovasco.com)



## Diru-laguntzak: beharrianak eta hartu beharreko neurriak laburbilduta

- **Berariazko gaiak diru-laguntza mota desberdinetan:**
  - Nahiz eta emakumeentzako lizentzietan ekintza positiboko neurriak aplikatzea egoki izan, zuzena litzateke udalak klubak "kate-faktorea" puntu gehiagorekin saritzea; hau da, kadete, gazte eta senior mailatan kirol eskaintza egotea.
  - Aparteko kirol ekitaldiak antolatzen bideratutako diru-laguntzak arautzeko oinarri batzuk daudenez, Udalarik aholkatzen zaio emandako diru-publikoa nora bideratu den jakiteko beharrezko irizpideak eta zuzitze-mekanismoak zehazteko.
  - Kirol entitateekin egindako hitzarmenetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako klausula bat txertatzea.
- **Emandako diru-laguntza publiko guztienak diren gaiak (4/2005 Legea betetzeari buruzkoak):**
  - Beharrezkoa da Udalak kirol elkarteei emandako diru-laguntzek genero gaitan zelan eragiten duten (bai kuantitatiboki bai kualitatiboki) jakitea; zehatz esanda, giza-baliabideak eta materialak zelan banatzen diren.
  - Ezinbestekoa da Udalak elkarte onuradunei sexuaren eta kategoriaren arabera bereizitako kirolarien lizentzien datuak eskatzea, eguneratuta. Baita entrenatzaileen lizentzien datuak ere.
  - Udalak, diruz lagundutako erakundeei eskatu beharko lieke publizitatean komunikazio ez-sexista erabiltzeko (hizkera eta irudiak, informazioaren ordena, etab.)
- **Diru-laguntzetan puntuazio handiagoarekin baloratu ahalko liratekeen nahitaezko alderdiak:**
  - Emakumeen kirola zabaltzea, aitortzea eta ikusaraztea
  - Klubetan emakumeak sartzeko, eta bertan geratzeko, berariazko proiektuak garatzea
- **Kirolari emandako sariak.**
  - Entitateei proposamenak eskatzen zaizkienean, emakumeak ikusarazteak duen garrantziaz ohartarazi ahalko litzuzke hauek Udalak.



### 3.1.4. Hizkera eta irudiak Kirol Sailean eta UKPn


Kirol Sailak eta UKPk ezagutzera emandako dokumentuak aztertuta, agerian geratu da badagoela hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzeko borondatea. Ipuru kiroldegiko itagarki-taulan eta UKPren web-orrian argi ikusten da hizkera ez-sexista erabili dela. Eskaintzen diren jarduerak iragartzeko ere, emakumeak eta gizonak ageri dira bertako irudietan.

### 3 irudia. UDA igeriketa kanpaina UKPren web-orrian



FUENTE: [www.eibarkirola.com](http://www.eibarkirola.com)

### 4 irudia. Ipuru kiroldegiko kanpoko igerilekuaren barne-araudia



ITURRIA: Avento.



Hala ere, herritarrei zuzendutako komunikazioetarako Eibarko Udalak ezarritako genero irizpideekin bat etorriz, gizonak eta emakumeek burututako kirol jardueren irudietan ohiko estereotipoak apurtzen ahalegindu beharko litzateke.

### 5 eta 6 irudiak. Ipurua kiroldegiko atondua apaintzen duten horma-irudiak



ITURRIA: Avento.

Horrela, entrenamenduen gogortasunari eta emakumeen indarraren garapenari buruzko estereotipoak apurtzearen adibidetzat har daitezke, jarduera aerobikoetatik haratago, Eibarko Ttatt gimnasioaren Facebook-eko iragarkiak:





## 7 eta 8 irudiak. Ttatt gimnasioaren jardueren iragarkiak Facebooken



ITURRIA: <https://es-es.facebook.com/gym.ttatt>

Irudiak dibertsifikatzeaz gain, dokumentazioa berrikustea eta, web-orriko eta diru-laguntzen oinarrietako testuak idazterakoan irizpide bateratu bat finkatzea aholkatzen da.

Ondoko taulan zenbait adibide azaltzen dira, hainbat euskarritatik jasotakoak. Hizkera ez-sexista egoki erabiltzeko zenbait aukera ere ematen dira.





## 8 taula. Kirol Sailak eta UKPk dokumentazioetan erabilitako hizkera

Dokumentua / Testua	Estiloa	Adibideak (gaztelaniazko jatorrizkotik jasoa)	Proposamenak / Aukerak (gaztelaniazko jatorrizkoan jartzeko)
Ohiko jardueretarako eta txapelketetara jaoateko diru-laguntzetakoa	Barrak eta, forma generikoak eta maskulino generikoak uztartzen ditu	<ul style="list-style-type: none"> <li>- El / la solicitante</li> <li>- El / la beneficiario/a</li> <li>- Estar clasificados</li> <li>- Solamente se subvencionará a los siguientes miembros...: Jugadores/as, cuerpo técnico y un/a directivo/a</li> <li>- Licencias jugadores</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- La persona o entidad solicitante</li> <li>- La persona o entidad beneficiaria</li> <li>- Haber obtenido la clasificación</li> <li>- Únicamente se subvencionará a deportistas, cuerpo técnico y una persona de la Junta Directiva.</li> <li>- Licencias jugadores/as*</li> </ul>
UKPren jardueretan izena ematekoa (web)	Maskulino generikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Número de abonado</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Número de abono</li> <li>- Número de abonado/a*</li> </ul>
UKPko abonatua izateko arauetakoa (web)	@	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Cada un@ de los abonad@s</li> <li>- Aquell@s abonad@s familiares</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Cada persona abonada</li> <li>- Quienes tengan un abono familiar</li> </ul>

ITURRIA: norberak egina.

\*Gaztelaniazko inprimaki eta formulario laburretan barrak baliabideak izan daitezke. Hala ere, idatzitako testuetan eta dokumentuetan baztertu egingo ditugu, ahal dela, eta bestelako moduak erabiliko ditugu: forma generikoa edo bitan banatzea (jugadores o jugadoras).

Atal honetan Eibarko UKPren logotipoa aipa dezakegu, ageriki gizonezko irudia duelako. Egunen batean Eibarko Udalak logotioa berrizteko asmoa balu, diseinu berria egiterakoan kontuan hartu beharko luke aspektu hau.

## 9 irudia. Eibarko UKPren logotipoa



ITURRIA: [www.eibarkirola.com](http://www.eibarkirola.com)

Bestalde, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearekin eta Eibarko Udalaren berdintasunerako klausulekin bat etorritik, Kirol Sailak aparteko kirol ekitaldiak antolatzen dituzten, eta, horretarako diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten entitateei





eskatu beharko lieke ekitaldietako komunikazioetan eta iragarkietan emakumeen eta gizonezkoen presentzia berma dezatela, berdintasunez. Ekitaldiak direla-eta sortutako material guztian rolek dibertsifikatuta egon behar dute; herritarrengan kirol-jarduerak sustatu nahi badira, behar-beharrezkoa da komunikaziorako euskarri guztietan sexu bietakoak agertzea.

Beraz, entitate antolatzaileek irudi pluralak sartu beharko dituzte, gizonenak eta emakumeenak, ohiko estereotipoak ekiditeko. Guzti hau zaindu beharrekoa da. Gainera, herrian antolatzen diren kirol ekitaldien berri ematean, komenigarri litzateke bai gizonen bai emakumeen parte-hartzea ikusaraztea.

### Hizkera eta irudiak: **beharrizanak eta hartu beharreko neurriak** laburbilduta

- Diru-laguntzak emateko oinarrietan, eta, UKPren web-orriko izena emateko eta abonuen atalean hizkera berraztertzea.
- UKPn gizonen eta emakumeen irudiak dibertsifikatzea; berdina, bai batzuen bai besteen jarduerak ere.
- UKPren logotipoa berrituz gero, diseinu berria, estereotipoak apurtzeko eta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko irizpideak zehaztea.
- Diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten erakundeei hizkera ez-sexista erabiltzeko eskatzea; hala emakumeak nola gizonak ikusaraztea; irudietako estereotipoak baztertzea (3.1.3. atalean ere sartuta dago).





## 3.2. Parte hartzeko kirola

### 3.2.1. Abonamenduak

Eibarko Udal Kirol Patronatuak, gaur egun, 9.868 abonatu ditu. Eibarko emakumeen % 32,57 eta gizonen % 39,87 dago UKPn abonatuta, eibartarren herena, gutxi gorabehera.

**9 taula. Eibarko UKPko abonatuak ehunekotan, biztanleak adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta**

Adina	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	Guztira (%)
0-5	34,54	36,16	35,35
6-12	78,51	72,46	75,42
13-18	80,06	103,27*	91,57
19-30	38,36	56,46	47,48
31-45	46,82	46,11	46,45
46-65	27,17	32,57	29,84
66-75	13,26	14,28	13,74
75+	3,30	5,25	4,04
<b>GUZTIRA</b>	<b>32,57</b>	<b>39,57</b>	<b>35,97</b>

ITURRIA: norberak egina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ([www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net)) eta Eibarko UKPren datuak oinarri hartuta.

6 eta 12 urte bitarteko neskatoen % 80 eta mutikoen % 70 daude UPKra abonatuta. Berriz, 13 eta 18 urte bitarteko neskato-mutikoen % 80tik gora dira abonatuak. Adin-tarte horretan, abonatu kopurua Eibarko adin-tarte horretako biztanle kopurua baino handiagoa da. Arrazoia hau da: adin-tarte horretan, Eibar inguruko herrietako neskato-mutiko asko dago UKPko abonamenduarekin, kirola (eskubaloia, igeriketa, errugbia, etab.) Eibarko klubetan egiten dutelako.

Hala ere, sexu biak kontuan hartuta, abonatu gehien dituen adin-tartea 31 eta 45 urte bitartekoa da: emakumeak 1.304 abonamendu, eta 1.424 gizonak. Esan daiteke adin-tarte horretan eibartarren % 45ek duela abonamendua.






### 10 taula. Eibarko UKPko abonatuak, adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta

Adina	Emakumeak	Gizonak	Guztira
0-5	229	239	468
6-12	683	655	1338
13-18	498	631	1129
19-30	532	795	1327
31-45	1.304	1.424	2728
46-65	1.068	1.249	2317
66-75	211	202	413
75+	75	73	148
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.600</b>	<b>5.268</b>	<b>9.868</b>

ITURRIA: Eibarko UKP.

Adin-talde gehienetan, abonatuak gehiago dira gizonak emakumeak baino. Emakumeak gizonak baino gehiago diren adin-taldeak: 6 eta 12 urte artekoa; 66 eta 75 urte artekoa, eta 75etik gorakoa.

### 6 grafikoa. Eibarko UKPko abonatuak 2015ean, adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta




ITURRIA: norberak egina.



Abonatuak kirol-instalazioak nola erabiltzen dituzten jakite aldera, Ipurua kiroldegiko sarrera-erregistroak aztertu dira, egun zehatz batekoak<sup>9</sup>. Aztertutako datuen arabera, emakumeek baino gizonak gehiago erabili dute: % 42 eta % 58, hurrenez hurren.


7 grafikoa. 2015eko irailaren 15eko sarrera-erregistroetan gizon eta emakumeen proportzioa



ITURRIA: Eibarko UKP.

Erabiltzaile gehienak goizeko 9:00ak eta 10:00ak bitartean joaten dira kiroldegira. Sexu biak kontuan hartuta, arratsaldeko 17.00etan sartu dira gehien.

8 grafikoa. Ipurua kiroldegira egin diren sarraldiak (2015/09/15)



ITURRIA: Eibarko UKP.


<sup>9</sup> Ipurua kiroldegiko 2015eko irailaren 15eko sarrera-erregistroen azterketa.





Emakume gehien 17:00ak eta 18:00ak bitartean sartu da; gizonezko gehien, 18:00ak eta 19:00ak bitartean.

### 9 grafikoa. Ipurua kiroldegira egin diren sarraldiak; ordutegiaren, sexuaren eta adin-taldearen arabera sailkatuta.



ITURRIA: Eibarko UKP.

Ordu-tarte bakoitzeko sarrera-erregistroak aztertuz gero (adina eta sexua kontuan hartuta) honako hau ikusten da: 0 eta 19 urte bitarteko emakumeak 17:00ak eta 18:00ak artean sartzen diren bitartean, gizonezko gehienak ordu bete beranduago sartzen dira. Erregistro hauek, ziurrenik, bideratutako jardueretako parte-hartzearekin erlazionatuta egongo dira (igeriketa ikastaroak, edo klubaren entrenamendu saioak).

Hauen ondoren, 40 eta 59 urteko emakumeak dira kiroldegira gehien joaten direnak, hauek ere 17:00ak eta 18:00ak bitartean. Interesgarri litzateke jakitea ea emakume hauek kirol-jardueraren bat egiteko, edo soilik umeak laguntzeko sartzen diren. Honi lotuta, nabarmendu behar da 19:00etatik aurrera kiroldegira sartzen diren emakumezkoak askoz gutxiago direla gizonezkoak baino. Emakumeek etxea eta seme-alabak zaintzeko ardura gehiago dutelako izan daiteke, ziurrenik.





Gizonezkoen artean, 40 eta 59 urte arteko abonatuak ia ez dira 16:00etatik 17:00etara sartzen. Hala ere, 0 eta 19 urte bitartekoekin batera, instalazioak 18:00etatik 19:00etara gehien erabiltzen dituztenak dira.

Berriz, 60 urtetik gorakoak gainerako adin-taldeetakoak baino askoz gutxiago sartzen dira kiroldegira: 60 eta 79 urtekoen artean 38 sarraldi zenbatu dira; 80 urtetik gorakoak ia sartu ere ez dira egiten: 3 sarraldi baino ez dira erregistratu.

Adinaren eta sexuaren arabera kiroldegiko sarrera-erregistroak puntualki aztertzeak asko lagun diezaioke Eibarko Udalari, kirol-politikak aplikatu behar dituztenean: kirola sustatzeko neurriak, eskaintzaren diseinua, prezioak, etab...





### 3.2.2. UKPk eskainitako jarduerak

Eibarko UKPk, guztira, 40 jarduera eskaintzen ditu: 30 areto edo gelakoak, eta beste 10 igerilekuan egiten direnak. Hona zerrendatuta:

11 taula. 2015/2016 ekitaldian Eibarko UKPk eskainitako jarduerak

GELA-JARDUERAK	1	Matt Pilates
	2	Estudio pilates
	3	Erlaxazioa
	4	Yoga integratua
	5	Hatha Yoga
	6	Balance
	7	Dantza
	8	Dantza txiki
	9	Erritmo-dantzak
	10	Zumba
	11	Fitness
	12	Just Pump
	13	Spinning
	14	Aerobic
	15	123 sasoian
	16	Mantentze-gimnasia
	17	Functional Training
	18	GAP
	19	Bossu
	20	Integral Fit
	21	Fit Balance
	22	Nagusiak +60, +70
	23	Intentsitate baxukoa
	24	Spinninga nagusientzat
	25	Seniorren kirola
	26	Aulki aktibitatea
	27	Egokitutako kirola
	28	Hipopresiboak
	29	Karatea
	30	Tenisa


URETAKO JARDUERAK	1	Umeentzako igeriketa
	2	Igeriketa egokitua, umeentzat
	3	Txiki igeriketa
	4	Helduentzako igeriketa
	5	Igeriketa egokitua, helduentzat
	6	Running pilates
	7	Acuafitness
	8	Acuarunning
	9	Acuasalud seniorrak
	10	Bizkar osasuntsua uretan

ITURRIA: [www.eibarkiorla.com](http://www.eibarkiorla.com)



Jarduera hauetan 1.852 lagunek parte hartzen dute: 1.229 emakumek (% 68) eta 623 gizonek (% 32)<sup>10</sup>.

#### 10 grafikoa. UKPren jardueretan parte hartzen duten gizon-emakumeak, ehunekotan



ITURRIA: Eibarko UKP.

Eskaintako jardueretan parte hartzen duten gizon-emakumeen % 80 UKPn abonatuak dago. Jardueretan, bai gizonetzkoak bai emakumezkoak kontuan hartuta, gehien parte hartzen duen adin-taldea 6 eta 12 urte artekoa da. Emakumeek gizonek baino gehiago parte hartzen dute, nabarmenki, adin-talde gehienetan gainera, batez ere 31 eta 45 artekoek, eta 46 eta 65 artekoek.

#### 12 taula. UKPko jardueretan parte-hartze maila, adin-taldearen eta sexuaren arabera sailkatuta

Adina	Emakumeak			Gizonak			Guztira
	Abonatuak	Ez abonatuak	Guztira	Abonatuak	Ez abonatuak	Guztira	
0-5	121	27	148	98	24	122	270
6-12	257	38	295	159	29	188	483
13-18	93	11	104	20	1	21	125
19-30	85	19	104	16	24	40	144
31-45	164	31	195	83	20	103	298
46-65	247	54	301	84	12	96	397
66-75	12	4	16	36	6	42	58
75+	52	14	66	11		11	77
<b>Guztira</b>	<b>1.031</b>	<b>198</b>	<b>1.229</b>	<b>507</b>	<b>116</b>	<b>623</b>	<b>1.852</b>
	83,89%	16,11%	100%	81,38%	18,62%	100%	

ITURRIA: Eibarko UKP.

<sup>10</sup> UKPren aplikazio informatikoa noiz kontsultatu den: 2015eko iarailaren 15ean.





Jardueretan parte-hartzea aztertuz gero (adinaren eta sexuaren arabera), datuek argi erakusten dute UKPn abonatuak gehienak (75 urtetik gorako emakumeak eta 0 eta 5 urte arteko umeak bazter utzita; hauen artean abonatu/parte-hartze portzentajea % 50 ingurukoa da) kiroldegira kirola haien kabuz egitera joaten direla, eta ez horrenbeste UKPk eskainitako eta bideratutako aktibitateak egitera.

**13 taula. UKPk eskainitako jardueretan parte hartzen duten abonamendudun gizon-emakumeen kopurua, ehunekotan**

Adina	Emakumeak (%)	Gizonak (%)	Guztira
0-5	52,84	41,00	46,79
6-12	37,63	24,27	31,09
13-18	18,67	3,17	10,01
19-30	15,98	2,01	7,61
31-45	12,58	5,83	10,66
46-65	23,13	6,73	14,29
66-75	5,69	17,82	11,62
75+	69,33	15,07	42,57
<b>Guztira</b>	<b>22,41</b>	<b>9,62</b>	<b>15,59</b>

ITURRIA: norberak egina.

Azterketa hau egiteko, baliteke eskainitako jardueretan ikasturte hasierako izen-emateak erabat amaitu orduko jasotako datuak erabili izana. Halaber, emaitzek nabarmendu beharreko zenbait datu eman dizkigute: 66 eta 75 urte bitarteko emakume abonatuak % 5ek baino ez du UKPk eskainitako jardueraren bat egiten; berriz, 13 eta 18 urteko emakume abonatuak %18k parte hartzen du UKPk eskainitako jardueraren batean. Adin bereko gizonen artean portzentajea % 3koa da, eta, beraz, gerta liteke adin horietan mutikoek kirola, gehienbat, kirol klubetan egitea.

Datu hauetatik beste ondorio bat ere atera dezakegu: beste zenbait herritan gertatzen den antzantzerako, gizonak emakumeekin alderatuta kirol instalazioak, batez ere, kirola haien kabuz egiteko erabiltzen dituzte. Halaber, badirudi emakumeek ere joera horri ekin diotela; dinamiketan parte-hartu duten emakumeek jardueren fisikoak atsegin dutela adierazi dute, baita honek eragiten duen ongizate sententzia ere. Talde izatea hori eta laguntza-emozionala ere asko baloratzen dute.





- ✓ *“Igeriketa taldean batera egon ginen duela hiru bat urte, eta nahikoa ikasi genuela iritzi genionean, geure kabuz ekitea erabaki genuen. Elkarrekin geratzen gara. Lau-bost laguneko taldea gara, oso diziplinadunak... Ona da bizkarrerako, baina emozionalki ere asko laguntzen digu”.*

Emakume hauetako batzuek diotenez, Ipurua eta Orbea kiroldegiak erabiltzen dituzte. Halaber, sexua dela eta banaketa argia dagoela irizteaz gain, espazioak estereotipoz beteta daudela diote, gune anaerobikoak gizonek erabiltzen dituztelako gehienbat. Haien iritziz, gizarte-harremanetan emakumeek baino kirol gehiago egin dutelako, edo pisu-makinak erabiltzen ohituago daudelako, gizonek ez dute emakumeek besteko laguntzarik behar aparailu hauek erabiltzeko. Emakumeentzako oztopoa ei da entrenamenduak zuzentzeko eta laguntzeko inor ez egotea.

Dinamiketan parte-hartu duten emakumeek beste alderdi garrantzitsu bat ere aipatu dute: gimnasioan kikilduta sentitu dira; espazioa gizonezkoak okupatzen dute gehienbat, eta emakumeak ez dira bertan egoten ausartzen. Ziurtatzen dute, gainera, ez dituztela batere atsegin hango gizonen begiradak. Sentsazio hau, aipatzen dutenez, hala kirol federatua nola kiroldegian haien kabuz egiten dutenek, guztiek partekatzen dute:

- ✓ *“Arrazoi kulturalak... jendea begira...kikildu egiten zaitu... ni deseroso sentitu naiz. Beste arrazoietakoa bat zelan erabili ez jakitea da. Gizonentzat ere txarra izango da hau, ziur askok ez dakitela zelan erabili, baina ez galdetzarren...”.*
- ✓ *“Hango arazoa zera da, makinak dauden gunea oso txikia dela. Eta, Ipurua inguruko bizilagunak Orbeara joaten dira. Izan ere , Ipuruako makinak dira... han ez da ordaintzen... Gero, jende asko etortzen da, kirol apur bat egin nahi duten emakumeak, eta makinak zelan erabili azaltzeko inor ez dutenez... jendeak animoak galtzen ditu. Gizonak, berriz, asko daude bertan, eta baten bat bakarrik etorrita ere...”.*

Gainera, emakume hauen sentsazioak bat datoz bertako mutil gazteek antzematen dutenarekin ere:





√ *“Atzo Ipuruako gimnasioan egon nintzen, gizona zko inguratuta; bi emakume baino ez geunden. Gizon gehienak han zeuden, haien muskulutxoekin, eta ni neure kirolari ekiten: bizikleta, eliptikoa eta antzekoak... gustura. Ni gustura ateratzen naiz handik, eta kito. Etxera heldu nintzenean, nire seme txikiak esan zidan –entrenatzen zebilen, eta taldekide bat lesionatuta zegoenez gimnasioan bizikletan ari zen errekupeazioa egiten–... eta, semeak esan zidan: -ama, honek zera esan dit, gimnasioan gizon batek txarto begiratu zaituela... nik uste dut ez zinatekeela bertara bueltatu behar; izan ere, denak dira gizona zkoak, eta zu han bakar-bakarrik... -Ba, arazoa gaizki begiratu nauen mutilak du... Nik neure adina dut, eta ohituta nago; baina neska gazteak joanez gero...”.*

Emakumeek ere gune libreak erabiltzea sustatze aldera, eta gunea haientzat arrotza, ezezaguna eta deserosoa izan ez dadin, egoki litzateke UKPk gimnasioetan gai hauekiko sentsibilizazioa duen norbait jartzeko aukera hausnartzea, emakume hauek adierazitako arazoaz jabetzen den norbait, hain zuzen ere. Gune hau emakumeek ere erabiltzea sustatuko eta erraztuko luken norbait.

UKPk eskainitako 40 jardueretatik 33tan parte hartzen dute izena emana duten 1.852 lagunek. Emakumeek gehien parte hartzen duten jarduerak dira: igeriketa (% 24), hirugarren adinekoentzako gimnastika (% 11) eta errito-dantza (% 8). Gizonen artean, berriz, hauek dira: igeriketa ikastaroak (% 53), fitnessa (% 13) eta hirugarren adinekoentzako gimnastika (% 5).





14 taula. Parte-hartzea, jardueraren eta sexuaren arabera sailkatuta<sup>11</sup>

Jarduera	Emakumeak	Gizonak	Guztira
1,2,3 sasoian	18	8	26
Mententze-gimnasia	26	6	32
Kirol egokitua	4	6	10
3. adina	144	31	175
Gimnasia aulkiekin	2		2
Nagusiak ostiraletan	6	1	7
Fitness	64	76	140
Spinning	37	25	62
Karatea	1	21	22
Aerobika	17		17
Zumba	58		58
Danza-txiki	92	2	94
Erritmoa-dantza-psik.	103	1	104
Jazz dantza	90	1	91
Igeriketa ikastaroak	305	307	612
Bizkar osasuntsua uretan	16	9	25
Acuaruning	11	10	21
Acuafitnes	45	3	48
Acua osasuna	22	6	28
Runing+Pilates	11	10	21
Matt Pilates	68	5	73
Just Pump	7	2	9
Erlaxazioa	4	1	5
Yogilates	13	5	18
Estudio Pilates	20	6	26
Integral fit	22	3	25
Bosu	8		8
GAP	14	1	15
Gimnastika hipopresiboa	21	2	23
Fit Estudio	4		4
Fit Balance	6		6
Balance	8		8
Tenisa	8	29	37
<b>Guztira</b>	<b>1.275</b>	<b>577</b>	<b>1.852</b>


ITURRIA: Eibarko UKP.

<sup>11</sup>Parte-hartzaile guztien batura bat dator adin-taldearen araberako analisiak emandako zenbatekoarekin. Hala ere, jarduera bakoitzean parte-hartzen duten gizon eta emakume kopuruak zertxobait aladutzen dira, iturriaren arabera.



Emakumeek 33 jardueretan, guztietan, parte hartzen dute. Ordea, ez dago gizonik gimnastika aulkiekin jardueran, aerobiken, zumban, bosun, fit studion, fit balancen eta balancen. Inskripzioei erreparatu badiugu, igeriketa ikastaroak eta fitnessa dira sexuen arteko oreka handiena dutenak.

11 grafikoa. UKPren jardueretan parte-hartzea, sexuaren arabera sailkatuta



ITURRIA: Eibarko UKP.

UKPko gerentearen eta dinamiketan parte hartu duten emakumeen iritziz, UKPren jardueretan parte hartzea estereotipatuta dago; emakumeek koordinazioarekin eta dantzarekin zerikusia





duten aktibitateetan parte hartzeko joera dute, eta estetikari eta pisua galtzeari garrantzi handiagoa ematen diote. Gizonek, ordea, indarra garatzeko egiten dute nagusiki.

Eskaintzari dagokionez, gimnasioari buruzko iradokizunaz gain, hiru proposamen zehatz egin dituzte: batetik, kiroldegiak lehenago zabaltzea, lanaldiaren aurretik kirola egitea errazteko. Bestetik, gimnastika hipopresiboa egiteko ordutegia zabaltzea. Ondo iritzi diote UKPk jarduera hau eskaintzeari, baina Eibar den herrirako nahikoa ez dela uste dute (astean bitan: behin goizeko txandan, behin arratsaldekoan). Jarduera hau erditu ondoren muskulua errekuperatzearekin estuki lotuta dagoen arren, berdin-berdin balio du emakumeen zoru-pelbikoa indartzeko, batez ere inpaktuko jarduera-fisikoren bat burutzen duten kasuetan, edo korrika sarri egiten badute. Dinamiketako parte-hartzaileen iritziz, gaur egungo ordutegiak ez dira egokiak lana dutenentzat.

Eta, azkenik, haurtzaindegi edo zaintza zerbitzua, edo ume txikientzako psikomotrizitate jarduerak jartzeko aukerak azter daitezela eskatzen dute. Horrela, gurasoek neba-arreba nagusiak laguntzen dituzten bitartean, jarduera-fisikoa egiteko aukera edukiko lukete. Bide honetan, Udaleko gazteria-teknikariak familian burutu daitezkeen zenbait jarduera sustatzeko ahaleginetan dabilzala argitu du, gurasoek eta seme-alabek denbora eta olgeta-guneak elkarbanatu ahal izateko.

### 3.2.3. Beste zenbait parte hartzeko jarduera

UKPren kirol eskaintzaz gain, aurrez aipatutako gimnasioek (Juanito, Ttatt, Tx4 eta Ugan) hainbat kirol-jarduera eskaintzen dituzte<sup>12</sup>, goizeko 7etan edo 8etan hasi eta gaueko 22ak arte, esaterako: muskulazioa, spinninga, zumba, HIT, hipopresiboak, arte martzialak, aquagyma, areto-dantzak, pilates, mantentze-gimnastika, haurdunentzako gimnastika, umeentzako jarduerak, umetxoentzako igeriketa, etab.

---

<sup>12</sup> Informazio-iturria: <http://www.tx4fitness.com/>, <http://www.uganklub.net/> eta <https://es-es.facebook.com/gym.ttatt>





Dinamiketan parte hartu duten emakumeek adierazi dutenez, Eibarren badira dantza-taldeak, non emakumeek parte hartzen duten. Gainera, urtean zehar hainbat emanaldi egiten dituzte. Gainera, Udaleko gazteria-teknikariaren esanetan, neskato-koadrila ugari biltzen da astebururo Gaztelekun. Dioenez, nahiz eta kirol-jarduerak ez diren Gaztelekuko programazioan sarritan eskaintzen, neskek koreografiak diseinatzen dituzte bertan, eta luzaroan egoten omen dira video-kontsolarekin taldean dantza eginez.

Parte hartzeko kirolari buruzko dinamiketan bada nabarmendu den aspektu bat: taldearen garrantzia, hain zuzen ere. Parte-hartzaile guztiek adierazi dute kirola taldean egiteak asko laguntzen duela; bat egiteko pizgarria da, eta, aurrez ere aipatu den bezala, laguntza emozionala ere bada.

Tradizioz, gizonak, genero sozializazioa dela eta, errazago izan dute kirola egiteko taldea aurkitzen, helburua kirola bera izanik. Emakumeek, ordea, kirola sozializatzeko erreminta gisa erabili dute sarritan, taldea sortzeko, hain zuzen ere.

- ✓ *“Taldeak garrantzi handia du. Askoz errazagoa da taldean egitea. Nik sarritan ez dut behar izanik eduki, baina, orain, dena delakoagatik, behar dut. Badut lagun bat nirekin hasi zena, eta orain ere jarraitzen du... Talde bat. Behar izan bat. Bakoitza bere erritmoarekin, baina...”*
- ✓ *“Zure lagun-taldea izan daiteke, edo ez... gure taldean ez gara denok berdinak, igeriketa ikastaro batean ezagutu genuen elkar. Joan zoaz, eta, azkenean, ezin hobeto moldatzen zara. Ikastaroa eta gero, elkarrekin hartzen dugu kafetxea ere... gauzez hitz egiten duzu, sozializatzeko modu bat da”*

Zalantzarik gabe, korrika egitera irtetea emakumeen artean geroz eta ohikoagoa den joera bat da. Dinamiketan parte hartu duten zenbait emakumeek aipatu dutenez, gustatuko litzaieke taldea edukitzea, bai patinatzerara joateko, bai korrika egiteko, edo mendira paseatzera joateko.

- ✓ *“Zure lagun-taldea izan daiteke, edo ez... gure taldean ez gara denok berdinak, igeriketa ikastaro batean ezagutu genuen elkar. Joan zoaz, eta, azkenean, ezin*





*hobeto moldatzen zara. Ikastaroa eta gero, elkarrekin hartzen dugu kafetxea ere... gauzez hitz egiten duzu, sozializatzeko modu bat da ”.*

- ✓ *“Sasoiak dauzkat. Normalean, batez ere, korrika egiten dut. Herri-lasterketaren batean ere parte hartu izan dut... Baina, azkenaldian motibazioa falta zait... Deialdi hau eta gero, taldean irten nezakeela pentsatu nuen... Lagunak ditut Elgoibarren<sup>13</sup>, eta poz-pezik daude...”.*
- ✓ *“... (kirolak) estresa kentzen dit, eta asko atsegin dut. Osasuna da. Lagun-talde bat eduki nahi nuke, korrika egitera joateko. Nire adineko jendea ikusten dut, oinez, baina korrika gutxi...”.*

Talderik ezaz gain, nabarmendu diren oztopoak hauek dira: beldurra eta lotsa, batez ere neska gazteen artean.

- ✓ *“Guk geuk jartzen dugun hesi bat dago... lotsa dela eta, herri-lasterketetan parte hartzen ez duten neskek. Zaila da hesi hori apurtzea...”.*

Emakume hauek Ermura oinez joateko ohitura ere badutela adierazi dute, eta medira paseatzera joatekoa ere bai (onura psikologikoak ditu haientzat jarduera honek). Nahiz eta zenbait emakume mendira bakarrik joaten diren, gehienek diote ez direla ausartzen, nahiago luketela taldean joatea.

- ✓ *“Honek asko laguntzen du ondo egoten, autoestimua edukitzen... gauza askotan laguntzen du... Emakume batek, zahartzen denean, ezer egiteko gai ez dela uste du, eta psikologikoa da hori, ez adin kontua. Gura izanez gero, eta gorputzak erantzuten badu, gai zara ”.*

---

<sup>13</sup> Elgoibarko Udalak kirol arloari buruzko analisi bat egin zuen, genero ikuspuntutik. Emakumeek egindako proposamenen artean korrika egitera joateko talde bat sortzearena zegoen, entrenamenduak zuzenduko zituzten pertsona baten laguntzarekin. Ekimenak arrakasta handia izan zuen, eta jende ugari bildu zen. Informazio gehiago jasotzeko: <http://www.diariovasco.com/bajo-deba/201409/04/correr-engancha-algunas-terminaran-20140904000423-v.html>







Bide horretan, Eibarko *Ikasten* proiektu sozialak hileru bi mendi-ibilaldi antolatzen ditu, parte-hartzaile gehienak emakumeak izanik. Laguntze aldera, Eibarko Udalak egin dezake: batetik, Andretxea baliatuta mendi-ibiliak egiteko eskaintza bideratu, *Ikastenekin* zein Mendi Taldearekin koordinatuta, eta ibilaldi hauek zuzendu ditzaketen emakumeen laguntzarekin. Beste hainbat herritan egiten den antzera, emakumeentzako orientazio-ikastaro bat ere antolatu daiteke, galtzeko beldurrak eragindako oztopoak gainditzeko, eta gune naturaletan ahalduntzea sustatzeko.

Halaber, aurrez aipatutako ibilbide osasungarrien proiektua erremintatzen erabil daiteke, biztanle-segmentu desberdinetako emakume zein gizonentzat mendi-ibilaldi proiektu bat diseinatzeko.





## Parte hartzeko kirola: **beharrizanak eta hartu beharreko neurriak** laburbilduta

- UKPren abonamenduekin eta jarduerekin zerikusia duten gaiak
  - Erregistroen, abonamenduen eta parte-hartzearen analisi puntuala egitea, adinaren eta sexuaren arabera, hauek errazteko:
    - Eskaintza eskaerari egokitzea.
    - Egoki irizten diren segmentuetan kirol-jarduera sustatzea.
  - Zabaltzeko ordua aurreratzeko aukerak aztertzea
  - Haurtzaindegia, edo gurasoek eta seme-alabek kirol-jarduerak ordutegi berean egiteko aukerak baloratzea.
  - Gimnastika hipopresiboa egiteko eskaintza handitzea.
  - Emakumeek identifikatutako oztopoak aintza hartu, eta, hauekin sentsibilizatutako pertsona baten gidaritzapean gimnasioak erabiltzeko aukera ematea.
- Aire zabalean egiten den kirol-jarduerarekin zerikusia duten gaiak
  - Udalak emakumeei korrika egitera taldean eta antolatuta joateko aukerak ematea.
  - Patinatzera taldean joateko aukerak ematea (Andretxeatik bideratuta eta autogestionatuta agian?).
  - Mendi-ibiliak taldean egiteko aukera ematea (Andretxeatik, *Ikastenetik*, Mendi taldetik, etab. bideratuta?)



### 3.3. Eskola-kirola

Eibarren, eskola-kirolaren programa garatzeaz OKE enpresa arduratzen da. Eskola-kirola lehen mailako irakaskuntzako hirugarren eta laugarren mailetan (benjamin maila) eta bosgarren eta seigarren mailetan (alebin maila) egiten da. OKEk koordinatzen du guztia 2006tik hona: entrenamenduak zuzentzen ditu eta astebururo jarduerak antolatzen ditu. Gainera, euskara, errespetua eta parte hartzea bezalako gaietan GEek hartutako akordioak bete daitezen arduratzen da.

OKE arduratzen da UKPk eskainitako jarduerak emateaz ere, nahiz eta eskola-kirola kudeatzea ez duen Udalak berak kontratatu; koordinazio gastuei aurre egiteko Aldundiaren eta Udalaren diru-laguntzak, eta gurasoek ordaindutako kuotak erabiltzen dira. Une honetan 7 lagun daude OKERentzat lanean, emakume bat eta sei gizon. Inoiz, lau emakume eta bi gizon ere egon izan dira. Gehienak Gorputz Hezkuntzan edo Kirol Magisteritzan lizentziadunak dira.

Eskola-kirola kudeatzeaz OKE arduratu aurretik, Eibarko kirol klubek kudeatzen zituzten entrenamenduak eta partidak, baina, ez zuten eskaerari aurre egiteko besteko egiturarik, eta eskolek eta Guraso Elkarteek (GE) OKEk antola zitzala erabaki zuten. Hala ere, eskola-kirolean klubek eduki behar zuten garrantziaz jabeturik (hauek, haur-kategorietatik hasita bideratzen dute eskaintza), asteburuetako partidak antolatzeaz klubak ardura zitezela erabaki zen. Asteazkenean, umeez elkarrekin entrenatzen dute eskolan –edo, kiroldegia erabiliz gero, ikasturte bereko eskolako lagunekin–, eta, asteburuetan, talde mistoetan banatzen dira, partidak jokatzeko.

Gaur egun, Eibarko eskola-kirolaren programak taldean egiteko hiru kirol (errugbia, futbola eta eskubaloia) eta banakako zazpi eskaintzen ditu, bi bloketan banatuta: lehenengoan daude atletismoa, pilota eta saskibaloia (taldeko kirola izan arren, eskola-umeez banaka parte hartzen dute); bigarrean, berriz, patinajea, judoa, waterpolo eta duatloia daude. Banakako kirolean eskola desberdinetako ikasleek parte hartzen dute, batera. Taldeko kirol bakoitza bost egunez egiten da; banakakoak lautan; eta, ikasturte amaieran kirolaren eguna ospatzen da, herri kirolekin, ginkanarekin eta beste hainbat jokorekin. Guztira, 20 jardunaldi izaten dira.





2014/2015 denboraldian Eibarko eskola-kirolaren programan 533 eskola-umek parte hartu zuten, guztira: 190 neskatoak (% 36) eta 343 mutikok (% 64)


**15 taula. Eskola-kirolean parte-hartzea, sexuaren eta kategoriaren arabera sailkatuta (2014/2015)**

	Neskatoak	Mutikoak	Guztira
Benjaminak	101	200	301
Alebinak	89	143	232
Guztira	190	343	533

ITURRIA: OKE.

Sexu bietan, alebin mailatik alebin izatera igarotzeko tarte horretan, gutxiagok parte hartzen du eskola-kiroleko programan.

**12 grafikoa. Eskola-kirola programako parte-hartzea, ehunekotan, eta sexuaren arabera sailkatuta**



ITURRIA: OKE.

OKEko arduradunaren arabera, jarduerak aukeratzekoan estereotipoak daude, oraindik ere; eta, batez ere, zenbait kirol-modalitate egiterakoan sexu batekoengandik eta bestekoengandik itxaroten dugunari erreparatzen badiogu. Adierazpen honekin bat datoz, bai dinamiketan parte hartu duten emakumeak, bai eskola-kiroleko monitoreak. Halaber, neskato edo mutikok






kirolarekiko duten jarreraz hitz egitean, azken kolektibo honetakoan artean iritzi desberdinak daude. Alde batekoek diote neskatoek jarrera pasiboa hartzen dutela, oso kirolariak ez diren zenbait mutikok bezala, eta mutikoek iniziatiba gehiago dutela, oldarkorragoak direla –arrazoi kulturalak aipatu dituzte–. Beste batzuentzat, ordea, sexuen artean ez dago horrenbesteko desberdintasunik.

Haien ustean, oldarkorregiak direlako-edo, zenbait gurasoek oztopoak edo aurreiritziak jartzen dizkiote zenbait kirolari, ezjakintasunak eraginda –errugbiari, esaterako–. Adin horretan errugbi-zapitxoan jokutzen da, eta ez dago kontakturik.

### 13 grafikoa. Eskola-kirolean parte-hartzea, sexuaren eta kirolaren arabera sailkatuta




ITURRIA: OKE.

Parte-hartze mistoko ereduari eta haren egokitasunari dagokionez, OKEko arduradunaren iritziz proiektuari ekin ziotenetik neskatoen parte hartzea gutxitu egin zen. Ordea, datuak aztertzerakoan agerian geratu zen parte-hartze maila berdin mantendu zela. Ondorioz, eskolek eta GEek formatu-mistoa mantentzea erabaki zuten. Gainera, gaur eguneko eskaintzari ekin zitzaionetik, Eibarko klubek futboleko, errugbiaren eta waterpoloaren emakumeen taldeak sortu dituzte. Zentzu honetan, eskola-kirolak eragin positiboa izan duela uste du.





#### 14 grafikoa. Eskola-kiroleko parte-hartzearen eboluzioa, sexuaren arabera sailkatuta



#### ITURRIA: OKE.

Hala ere, neskatoen parte-hartze datuei erreparatuta, hiru alderdi nagusi nabarmendu behar dira: lehenengoa, parte-hartze portzentajea % 36koa dela; bigarrena, ereduak mistoa dirudien arren, eskola-kiroleko monitoreen iritziz 7 eskoletatik bakarra har daiteke parte-hartze mistokotzat: Iturburu. Izan ere, gainerakoetan neskatoen parte-hartzea mutikoena baino askoz txikiago da; eta, hirugarrena, OKEko arduradunaren iritziz jarduera hauetan neskatoak nekez izango dira liderrak, eta ziur dago bereizita parte hartuz gero protagonismo gehiago edukiko luketela. Horregatik egin zituen proposamenak GEetan.

Gizartean emakumeen eta gizonen artean berdintasunik ez dagoen bitartean, ezinbestekoa da neskatoek leku propioak edukitzea, tradizioz gizonenak izan diren jarrerak eta baloreak garatu ditzaten, eta, kirolaren bidez kirol-jarduerari eusteko, estereotipoak apurtzeko eta aurrerantzean ere kirol ibilbideari ekiteko trebetasunak eta abileziak har ditzaten. Taldean egiten den kirolak bizitzari aurre egiteko balore eta ikasketak ematen dizkigu, erraz lor ez daitezkeenak soilik gorputz-hezkuntzaren bidez, inguru misto batean, edo baterako hezkuntzan berariazko prestakuntzadun monitorerik edo entrenatzailek ez dutenean.





Beraz, Udalak proposatu beharko luke eskola-kiroleko parte hartzaileak sexuaren arabera bereiztea; komenigarria eta baloratu beharrekoa litzateke; gainera, neskatoek eskola-kiroltik egiten ez duten ikastxeetan hauen parte-hartzea sustatuko beharko da. Nahiz eta OKEko arduradunak adierazi aldaketa honen bideragarritasun ekonomikoa eta materiala aztertu beharko litzatekeela, egoki litzateke egitea.

Leku faltak arazoak eragiten ditu Eibarko eskola-kirolean; Astean lautan Ipuruako kirol anitzeko pista erabiltzen dute, pista berdea eta pilotalekua ere bai. Beraz, parte-hartzea haziko balitz, lekua dela-eta arazoak edukiko lituzketela uste du. UKPko gerenteak ere aipatu zuen arazo hau, ikastetxeetan eskola-kirola egiteko instalazio egokirik ez dutela argudiatuz.

Eskola-kiroleko koordinatzailearen esanetan, aplikatutako sistema –aste bitartean tituludun entrenatzaileekin saioak, jarduerak talde zehatzekin egin ordez– egokia da; garrantzitsuena ondo pasatzea, ikastea eta kirolean parte hartzea delako. Halaber, sistema honek alebin mailan zenbait alderdi tekniko lantzea zailtzen duela uste du. Haren iritziz, ezagutza hauek ere ezinbestean jaso behar dira.

Umeen kirol-jardueren, estereotipoen eta sortutako espektatiben aurrean gurasoek duten jarrera aipatu dute, hala eskola-kiroleko monitoreek, nola talde-dinamiketan parte hartu duten emakumeek. Bai neskatoen bai mutikoen artean kirola sustatzeak duen garrantziari buruz guraso hauek duten iritzia ere aipatu dute. Gai honi lotuta, Eibarko Udaleko euskara zerbitzuak kirolean euskarak zuen erabilerari buruzko materiala argitaratu zuen. Gurasoek txapelketetan zein jarrera eduki behar zuten ere azaltzen zen bertan. Material hau agortuta dago; hala ere, egoki litzateke Udalak, noizean behin, antzeko kanpainak burutzea, edo gurasoek haien seme-alaben kirol-jardueretan erakutsi beharreko jarrera egokiaz sentsibilizatzeko euskarriak argitaratzea.





## Eskola-kirola: beharrizanak eta hartu beharreko neurriak laburbilduta

- Ikastetxeetan neskatoen kirol-jarduerak sustatzea, diru-laguntzen bidez (sustapen-ekintzak bultzatu).
- Parte-hartzea sexuaren arabera bereizteko proposamena baloratzea
- Concepcion komentuko pista estaltzea? (3.1.2. atalean ere sartuta dago).
- Eskola-kiroleko monitoreak baterako hezkuntzan trebatzea.
- Gurasoentzako sentsibilizazio materiala argitaratzea.








### 3.4. Errendimenduko Kirola

Gaur egun, Eibarko taldeek 1.500 eta 1.900 lizentzia bitartean dituzte; gutxi gorabehera<sup>14</sup>, haietako % 24 emakumeenak, eta % 76 gizonenak.

#### 15 grafikoa. Federazio-lizentziak Eibarren, ehunekotan\*, eta sexuaren arabera sailkatuta



\* Federazio lizentzien % 81 oinarri hartuta egindako kalkulua

ITURRIA: norberak egina, UKPk eta Eibar Kirol Elkarteak emandako datuak oinarri hartuta..

Eibarko kirol eskaintza handia da, eta hogeita hamarren bat kirol elkartetik bideratzen da. Guztira, 22 kirol modalitate eskaintzen dira. Jarraian, Eibarko Udalaren diru-laguntzak jaso dituzten, edo jasotzen dituzten klubak zerrendatu dira, hauen lizentzia-kopuruarekin batera:

<sup>14</sup> Datu hauek zuhurtiaz erabili behar dira, ez dagoelako sexuagatik bereizitako klubien lizentziei buruzko datu gaurkoturik. Eibarko federazio lizentzien % 81 hartuta egin da kalkulua.





16 taula. Federatu lizentziak Eibarren<sup>15</sup>

Kluba	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Asolaberri	8	61	69
Eibarko Txirrindulari Elkartea			81
Klub Deportiboa			0
Xakea		16	16
Atletismoa	16	26	42
Txirrindularitza		21	21
mendia	139	354	493
Squasha		18	18
Pilota		14	14
Iraupen-eskia	1		1
Urpekoak	2	60	62
Debarrena KE		37	37
Eibartarrak		71	71
Kalamua judoa			67
Karatea			11
KA Saski		17	17
Gimnasia Erritmikoa	20		20
Errugbia	18	43	61
Eibar KE	64	247	311
Eibar Eskubaloia	71	110	181
Tiroa			81
Arku-tiroa	1	1	2
Triatloia			87
Urbat igeriketa	7	8	15
Urbat waterpoloia	7	41	48
Urki futbola	16	27	43
Kantabria Etxea			19
<b>Guztira</b>	<b>370</b>	<b>1.172</b>	<b>1.888*</b>

ITURRIA: norberak egina, Eibarko UKPk eta Eibar KEk emandako datuak oinarri hartuta


\* Emakume eta gizonen lizentzien batura ez dator bat lizentzien guztizko kopuruarekin, zenbait klubek sexuagatik bereizitako daturik ez dagoelako. Hauen datuak lizentzien guztizko baturak adierazten diren zutabeen baino ez dira sartu.

<sup>15</sup> Grisez dauden datuak 2013ari dagozkio, eta klub bakoitzeko guztizko lizentzienak dira. UKPk eman ditu; beltzez daudenak, puntuazioen datu-basetik ateratako datuak dira, 2015ean klubek ohiko jarduerak diruz laguntzeko erabilitakoak;



Datu hauetatik ateratako ondorio nagusiak dira: batetik, gizonen lizentziak emakumeenak baino gehiago dira; bestetik, emakumeek gizonak baino kirol gutxiagotan parte hartzen dute.

### 16 grafikoa. Federazio-lizentzien banaketa Eibarren, kirol-modalitatearen arabera sailkatuta




ITURRIA: norberak egina, Eibarko UKPk emandako datuak oinarri hartuta

Kirol-modalitateei dagokienez, Eibarren, federatu lizentzia gehienak mendikoak (% 26) eta eskubaloikoak (% 10) dira.



Hala ere, mendiko lizentziak, bola-jokokoak eta tirokoak albo batera utziz gero (orokorrean, kirol hauetako adin-tartea beste batzuetakoa baino zabalagoa da), Eibarko 14 eta 35 urte bitarteko biztanleen % 19 federatuta dagoela esan dezakegu; baina, kontuan hartu behar da Eibarko klubek inguruko herrietako neska-mutilen lizentziak ere badituztela.

**17 grafikoa. Federazio-lizentzien banaketa Eibarren, kirol-modalitatearen arabera sailkatuta (mendia, bola-jokoa eta tiroa kanpo utzita)**




ITURRIA: norberak egina, Eibarko UKPk emandako datuak oinarri hartuta.

Futbola, lizentzien % 41ekin, eta eskubaloia, %17rekin, dira Eibarren lizentziarik eta gehien dituzten kirolak. Kirol-eskolak kontuan izan gabe, Eibarko futbol-lizentzien % 13 inguru emakumeenak dira.





### 18 grafikoa. Eibarko futbolean emakumeen parte-hartzea



ITURRIA: Eibar KE.

Gaur egun, Eibar Kirol Elkarteak kirol-kate guztiko eskaintza du emakumeentzat, eta hau garrantzitsua da kirolari jarraipena emateko, eta kirola goizegi ez uzteko.

✓ *“Kirol federatua asko hobetu da emakumeen parte-hartzea. Lehen, 14 urtera arte, mutilekin soilik jokatu behar izaten genuen, eta gero neskekin; orain, berriz, txiki-txikitatik jokatzen da neskekin”.*

Diagnosian parte hartu duen zenbait emakumek dio, emakumeek kirola uzten dutela goi-mailako ikasketei ekiten dietenean; behin ikasketak amaituta, kirola egitea nahi izanez gero ez dira klubetara bueltatzen, kiroldegira baino –jarduera-fisikoa estetika zainzteko egiten da gehien bat–.

✓ *“Gure lagun-taldean 13 neska eta 7 mutil gara, eta mutilek kirol federatua egiten jarraitzen dute; neska gehienok, berriz, ez dugu ezer egiten... inguruak eragin handia du...”.*

Ikastera beste hiri batera doazenean, uste dute klubek lagundu egin beharko luketela, hiri hartako klubekin batekin harremanetan jartzen. Horrela, kirola egiten eta gozatzen jarraituko lukete.





- ✓ *“Gerta liteke Eibarren kirola egin eta, gero kanpora joan behar izatea; eta, han ezer ez aurkitzea... edo, hemen lagun-taldearekin egitea, gustura; baina kanpoan agian ez duzu norekin egin, edo motibazioa falta izaten da... Nire iritziz, bultzada hori oso garrantzitsua da”.*

Ezinbestekoa da emakume gazteek jakitea badutela ikasketak eta kirol-jarduera uztartzerik. Hala ere, horretarako, kirol ibilbidean gogobeteko bizipenak eduki behar dituzte, ezinbestean; ikasi egin behar dute, eta garapen pertsonala izan. Eta, xede horretan, kirol-jarduerara bideratutako giza eta material baliabideak oinarri-oinarrizko faktoreak dira. Ezinbestekoa da kalitatezko kirol-eskaintza egitea, kirolarien artean baliabideak egoki banatuta egotea. Neska gazteenentzako erreferente diren emakumeek ere lekua eduki beharko dute.

- ✓ *“Entrenatzaileak trebatzeaz ere hitz egiten dugu; baita monitoreez, motibatzen eta irakasten jakiteaz, etab. ere”.*

Aurrerapausoak egon diren arren –gurasoen babesa, emakumeen antropometriara egokituta ekipamenduak, aitortza–, diagnosi honetan parte hartu duten emakumeek adierazi dute aurrerapauso hauek oso astiro ematen direla, eta, orain ere, klubek emakumeak diskriminatu egiten dituztela:

- ✓ *“Mutilek lehentasun handiagoa zuten. Badiotsut, askoz handiagoa. Guretzat ziren, beti, orduz txarrenak, instalazio aldenduenak, arropaz kalean aldatu beharrak...”.*
- ✓ *“Mutilei gauzak erraz datozkie, guk beti ditugu zailtasun gehigarriak... sarritan, gizonezkoen “txip” hori gehiago nabari zaie; orduz jartzerakoan, esaterako”.*
- ✓ *(senior mailako taldea)... batzuetan, baliabideak eskuratzeko, gazteekin elkar-joka ibili behar izaten dugu”.*
- ✓ *“Guk musu-truk egiten dugu, atsegin dugulako, ..Mutilek beti izaten dute gehiago gogoan motibazio estrintseko hori... beti dute, hor, itxaropena... nire nebak, 17*





*urterekin, primak jasotzen ditu irabaziz gero (elkarrizketatuak baino maila txikiagoan jokatzen du)”.*

Bai kirol federatua egiten duten emakumeek, bai diagnosi honetan part hartu duen zenbait emakumek, kirolak ez duela hain eremu maskulinoa izan behar azpimarratu dute, eta estamentu guztietan emakumeen parte hartzearekiko irekiagoak izan behar duela. Gainera, klub bateko emakume teknikari batek dio beti izaten dela zaila neskak entrenatuko dituen norbait aurkitzea. Honetan, emakume kirolariak, ardura zati bat haiena ere badela aitortu dute.

- ✓ *“Guk ere badugu zertaz arduratu: erreferente izateaz”.*
- ✓ *“Emakume arbitroak ikustea garrantzitsua da... kirol-kode maskulinoak dituzte orain ere... –emakumeek ez dakite korrika egiten, futbol geldoegia egiten dute, ipurdian pisua dute”.*
- ✓ *“Emakume-gidariak. Beheko mailetako taldeetan, emakume-gidarien irudia indartu behar da”.*

Nola Emakume-gidariak, hala emakume entrenatzaile gazteen aholkulariak –eskarmentu gehiago duen baten babes teknikoa eta emozionala–, garrantzi handikoak dira emakumeei kirolean atek zabaltzen –eta, behin hori eginda, bertan jarraitzen– laguntzeko.

UKPko gerenteak eta klubeko zuzendari batek diotenez, Eibarren gora egin du emakumeentzako kirol federatuaren eskaintzak; hainbat klubek tradizioz gizonen kirolak izan direnetan emakumeen parte-hartzea sustatzeko apustua egin dute: waterpoloan, triatlloan, errugbian, futbolean, etab. Adibidez, emakumeentzako saskibaloia berriz eskaintzen da. Triatlloan, jabetuta emakumeei bizikletaz ibiltzera bakarrik iretetea gehiago kostatzen zaiela (ohituta ez badaude, behintzat), klubean kontuan hartzen dute hau, eta emakume kirolariarekin baterako entrenamenduak antolatzen dituzte; Eibar KE, Eibarren, emakumeen futbola indartzen ari da; errugbian, berriz, bi lagun berri sartu dituzte talde-teknikoan, beste hainbat zereginen artean errugbia bultzatzeko eta jokalarien trebakuntza-teknikoan laguntzeko. Hala ere, klub bateko zuzendari baten eta dinamiketan parte hartu duten zenbait emakumeren esanetan, emakumeek ez dute izaten





gizonek adinako aitortzarik; nahiz eta, Eibarko Udalak emakumeen lizentziak sustatu, edo, igogeratik, futbol taldeari aitortza erakutsi.

- ✓ *“Emakumeen kirola gehiago ikusten da, eta horrek eragiten du (parte-hartze gehiago)... hala ere, ez dago hain aitortua”.*
- ✓ *“Udalak futbol jokalaria aitortu zituenean, erabakia eztabaidatu zuenik ere egon zen.*
- ✓ *“Udaletxeko balkoira igo zituzten, eta ez zitzaien kasu handiegirik egin. Barregarri geratu zirela ere esan zuen batek edo bestek”.*

Eibarko udala eredu bat da, herritarrak sentsibilizatu behar ditu, eta kirolean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko apustua egin. Orain ere, kirol federatuan, emakumeek ez dute ordezkartza nahikorik, eta gutxietsita daude. Ezinbestekoa da klubek, batez ere dirulaguntza publikoa jasotzen dutenek, kirolariak berdin baloratzeko konpromisoa hartzea, emakumea zein gizona izan. Eta, baloratze hori, baliabideak hobeto banatzen eta gizartearen aurrean hobeto ikusarazten egiazta dadila. Gainera, ohiko estereotipoak apurtzerakoan, oraindik ere emakumeek inguruak eragindako oztopoei –familiaokak zein gizartekoak orokorrean– aurre egin behar diete.

- ✓ *“Emakumeek ez dakite korrika egiten, futbol geldoegia egiten dute, ipurdian pisua dute”.*
- ✓ *Niri, amak hau esan zidan: –baina, nora zoaz zu?– kolpe batekin ikusten bazaituzte... ziur jarraitzea merezi duela?... Gurasoekin ere lan egin behar da.*

Horretarako, Eibarren emakumeek egindako kirolak orain artean baino pisu gehiago eduki behar du, komunikaziorako euskarri guztietan (we-orriak, kartelak, berriak, aldizkariak, sariak, ikastetxeetara bisitaldiak, etab.). Gainera, emakume hauek Eibarko neska gazteentzako erreferente bihurtu behar dira.







## Errendimendu kirola: **beharrizanak eta hartu beharreko neurriak** laburbilduta

- Klubek, puntualki, lizentziei buruzko datuak ematea, sexuaren eta kategoriaren arabera bereizita (kirolariak eta entrenatzaileak) (3.1.3. puntuan ere jaso da)
- Kluben kirol eskaintzan kate-faktorea baloratzea (3.1.3. puntuan ere jaso da)
- Klubetan baliabideak egoki banatzeko ardura hartzea, bereziki diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten horietan (3.1.3. puntuan ere jaso da).
- Emakume-gidarien eta entrenatzaileen aholkukarien irudia baliatzea, emakumeek kirolean jarrai dezaten.
- Ikasketak direla eta beste hiri batera doazenean, klubek hiri hartako klubekin harremanetan jartzea, eta horretan laguntzea.
- Kirolean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz sentsibilizatzea herritarrak eta kirol arloko eragileak
- Herritarren artean Eibarko emakume kirolariak ezagutaraztea (web-orria, kartelak, berriak, aldizkariak, sariak, ikastetxeetara bisitaldiak, etab.).



## 4. Bibliografia

Eibarko Udala (2011). *Eibarko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako III Plana, 2011-2014.*

Non berreskuratuta: <http://www.eibar.eus/es/ayuntamiento/areas/servicios-sociales-1/igualdad/EIBARKOIII.BERDINTASUNERAKOPLANA.pdf> (2015eko abenduaren 2an).

EHA: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa*. 2005eko martxoaren 2an argitaratua, 42 zk.

HiriaKolektiboa (2010). *Ciudad y género, diagnóstico urbano con perspectiva de género*. Eibar Hiri Debebatua ikastaroen txostena. Eibarko Udalarentzat egindako lana.

### Kontsultatutako web-orriak

[www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net)

[www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)

[www.eibarkirola.com](http://www.eibarkirola.com)

<http://instalazioak.euskalkirola.com/>

[www.diariovasco.com](http://www.diariovasco.com)

[www.tx4fitness.com/](http://www.tx4fitness.com/)

[www.uganklub.net/](http://www.uganklub.net/)

<https://es-es.facebook.com/gym.ttatt>

<http://info.kirolbegi.net>



## II ATALA: EKINTZA-LERROAK



# 1

## KIROL SAILA ETA UDAL KIROL PATRONATUA

---

### 1.1 Udalak egindako kontratu publikoetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatu

1.1.1 Kirol Sailaren UKPren lehiaketa eta kontratu publikoetan berdintasun klausula sartu

### 1.2 Kirol-azpiegiturak hobetu, eskaintzaren kalitatea hobetzeko eta jarduerafisikoa sustatzeko

1.2.1 Ipurua kiroldegiko gimnasioko ekimendua hobetu

1.2.2 Concepción komentuko pista estali

1.2.3 Identifikatutako gunek ez-seguruetan irisgarritasuna eta argiztapena hobetu

1.2.4 Bide eta mendi-bide naturalak seinaleztatu

### 1.3 Kirolerako ematen diren diru-laguntza publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatu

1.3.1 Kirol eskaintzan kate-faktorea baloratu

1.3.2 Aparteko kirol jarduerak diruz laguntzeko oinarriak jarri

1.3.3 Kirol entitateekin egindako hitzarmenetan berdintasun klausula bat sartu

1.3.4 Diru-laguntzek eragindako genero inpaktua aztertu

1.3.5 Emakumeen kirola sustatzeko berariazko jarduerak baloratu

1.3.6 Eibarko kirol arloko emakume kirolariak ezagutarazi, kirola sarituz

### 1.4 Kirol Sailak eta UKPk zabalkunderako darabilen materialetan eta dokumentuetan hizkera eta irudiak modu sexistan erabiliko ez direla bermatu

1.4.1 Kirol Saileko eta UKPko dokumentuetan hizkera eta irudiak aldatu, egoki irizten direnak.

1.4.2 Hala emakumeen eta gizonen irudiak, nola batzuek eta besteek egindako jarduerak dibertsifikatu

1.4.3 Eibarko UKPk logotipo berria diseinatu beharko balu, estereotipoak apurtzeko eta berdintasunerako irizpideak zehaztu

1.4.4 Diru-laguntzak jaso dituzten erakundeei berdintasuneko komunikazioa eskatu





## 2 PARTE HARTZEKO KIROLA

---

### **2.1. Herritarrei abonamenduei eta instalazioei buruzkoak jakinarazi, hobeto ezagutu ditzaten**

2.1.1 Abonamenduak eta erregistroak aztertu, puntualki, eskaintza eskarira egokitzeko, eta horren aktiboak ez diren segmentuetan jarduera fisikoa sustatzeko

### **2.2 Erabiltzaileen asebetetze-maila hobetu, berariazko neurriak aplikatuta**

2.2.1 Instalazioak zabaltzeko ordua aurrera daitekeen baloratu

2.2.2 Haurtzaindegi zerbitzua, edo baterako kirol-jarduera eskaintzeko aukera baloratu (zaintzarekin bateratzeko)

2.2.3 Gimnastika hipopresiboaren eskaintza zabaltzea

2.2.4 Gimnasioak gidatuta erabiltzeko aukera ematea

### **2.3 Emakumeentzako aire zabaleko kirolean berariazko kirol eskaintza egitea**

2.3.1 Antolatuta korrika egiteko aukera ematea (Udala)

2.3.2 Taldean patinatzeko aukera ematea (autogestioa?)

2.3.3 Taldean mendi-ibilaldiak egiteko aukera ematea (modua aztertu)





### 3.1. Ikastetxeetan neskatoen kirol-jarduera sustatu

- 3.1.1. Diru-laguntzak ematerakoan, eskola-kirolaren programa barruan neskatoen kirol-jarduera sustatzeko neurriak sartzeko eskatu

### 3.2. Parte-hartzea sexuaren arabera bereizteko proposamena baloratu

- 3.2.1. Parte-hartzea sexuaren arabera bereiztea hausnartu, eta, bai bideragarritasuna bai neskatoei eragin dakieken onurak baloratu

### 3.3. Instalazioak egokitu, eskola-kirolaren programan eskola-umeak hobeto banatzeko

- 3.3.1. Concepcion komentuko pista estali (BIS 1.2.2).

### 3.4. Eskola-kiroleko monitoreak baterako hezkuntzan hezteia sustatu

- 3.4.1. Ikasturte hasierako batzarretan emakumeen eta gizonen berdintasunerako gaien formakuntza eman; edo, monitoreentzako berariazko formakuntza-saioa eman

### 3.5. Gurasoak eskola kirolean duten eginkizunaz sentsibilizatu

- 3.5.1. Gurasoak sentsibilizatzeko materiala argitaratu





## 4 ERRENDIMENDU KIROLA

---

### 4.1. Klubetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu, diru-laguntzen bidez

- 4.1.1. Klubek, puntualki, lizentziei buruzko datuak emango dituztela bermatu
- 4.1.2. Kirol eskaintzan kate-faktorea baloratu (BIS 1.3.1)
- 4.1.3. Diru-laguntzen bidez baliabideak egoki banatzeaz arduratu (BIS 1.3.4)

### 4.2. Klubetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna garatzeko neurriak sustatu

- 4.2.1. Emakume kirolarientzako emakume-gidariaren eta entrenatzaile-aholkulariaren irudiak baliatu
- 4.2.2. Ikasketak direla eta hiriz aldatu beharra dagonean, hemengo eta hango klubak harremanetan jartzeko bideak erraztu
- 4.2.3. Eibarko kirolariak herrian ezagutarazi

### 4.3. Kirol arloko eragileak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz sentsibilizatu

- 4.3.1. Gaiari buruzko trebakuntza eman.





ANDRAZKOEN  
FABORE

[www.aventoconsultoria.com](http://www.aventoconsultoria.com)



E [info@aventoconsultoria.com](mailto:info@aventoconsultoria.com)  
[www.aventoconsultoria.com](http://www.aventoconsultoria.com)

Pokopandegi 11  
012 bulegoa  
20.018 Donostia

T 943 317 038  
F 943 317 048